

Aurkibidea:	Orrialdea
1. AURKEZPENEA	5
2. 2/2004 LEGEA ETA BERE ARAUGINTZA	9
2.1. 308/2005 DEKRETUA, URRIAREN 18KOA, OTSAILAREN 25EKO 2/2004 LEGEA GARATZEN DUENA.	9
2.2. 309/2005 DEKRETUA, URRIAREN 18KOA, DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAREN ESTATUTUA ONARTZEN DUENA	9
3. DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAREN EGITURA	13
3.1. EBAZPENEA, 2005EKO AZAROAREN 28KOA, DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAREN ZUZENDARIARENA, DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAREN EGITURA ORGANIKOA GARATZEKO DENA.	13
3.2. ZERBITZU PUBLIKO BAT EMATEN DUELA-ETA, DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAK BERE JARDUNEAN ERABILI BEHARREKO IRIZPIDEAK.	13
3.3. DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAREN EGITURA ORGANIKOA	14
3.4. ZEREGINAK	15
4. ERAKUNDEEKIKO HARREMANA ETA KOMUNIKAZIOA	17
4.1. DBEBREN ZUZENDARIA EUSKO LEGEBILTZARREAN AGERTZEA	17
4.2. IRUDI KORPORATIBOA	17
4.3. WEB ORRIA	20
4.4. HITZARMENAK	20
4.5. NAZIOARTEKO ETA EUROPAKO AKREDITAZIOA ETA NAZIOARTE MAILAKO FOROETAN ESKU HARTZEA	22
4.6. DATU-BABES KONTUETAN, MINTEGIEN ETA BESTELAKO JARDUEREN ANTOLAKUNTZA	23
4.6.1. Estatuko datuak babeste kontuetako Kontrol-agintaritzen Konferentzia	23
4.6.2. Alkate eta Zinegotzientzako Datu Babesari buruzko I. Jardunaldia	24
4.6.3. Osasunari buruzko Datuen Babesaz II. Foroa	25
4.7. DATUEN BABESAREN ALORREKO ESTATU ESPAINIARREKO BESTE HAINBAT BULEGOREKIKO KOLABORAZIOA	25
4.8. DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO HITZALDI, MINTEGI ETA BESTELAKO JARDUERETAN ESKU HARTZEA	26
4.9. DATUAK BABESTEKO ESPAINIAKO BULEGOAREN PARTE HARTZEA KONTSEILU AHOLKU-EMAEAN	27
4.10.DBEBk BERE ESKUMENAREN PEKO ERAKUNDEEI BULEGOA AURKEZTEKO KANPAINAREN DISEINUA	27
5. DATUAK BABESTEKO EUSKADIKO ERREGISTROA	29
5.1. DATUAK BABESTEKO ERREGISTROAREN KUDEAKETA SISTEMA	29
5.2. SIDIR HITZARMENAREN APLIKAZIOA ETA ERREGISTROEN ARTEKO INFORMAZIO-TRUKEA	29
5.3. FITXATEGIAK AITORTZEKO PROZEDURAREN ERREGULAZIOA	30
5.4. UDALEK BEREN BETEBEHAR FORMALAK ZENBATERAINO BETE DITUZTEN EGIAZTATZEKO KANPAINA	31
5.5. DATUEN BABESEAN LAGUNTZAILE-SAREA ABIAN JARTZEA	31

5.6. DATUAK BABESTEKO ERREGISTROKO INSKRIPZIOAK. DATUAK ETA KOADROAK	32
5.6.1. Informazioaren jatorria	32
5.6.2. Inskripzio-eskabideak	33
5.6.3. Erakunde aitortzaileak	34
5.6.4. Inskribatutako fitxategiak	35
5.6.5. Inskribatutako fitxategiak erakundeka xehatuta	35
5.6.6. Aitortutako fitxategien segurtasun-mailak	36
5.7. DBEBREN FITXATEGIAK ARAUTZEA	37
6. AHOLKULARITZA JURIDIKOA ETA IKUSKARITZA	39
6.1. OROKORKI	39
6.2. KONTSULTA-FUNTZIOA	39
6.2.1. Idatzizko kontsultak	39
6.2.2. Txostenak	42
6.2.3. E-mail eta telefonoz zein aurrez aurreko kontsulten erantzuna	43
6.3. KONTROL FUNTZIOA	43
6.3.1. Zaintza-espedienteak	43
6.3.2. Salaketak	44
6.3.3. Aurretiazko jarduerak	45
6.3.4. Lege-hausteen espedienteak	45
7. IDAZKARITZA OROKORRA	47
7.1. GIZA BALIABIDEAK	47
7.1.1. 2005eko aurrekontu-plantilla	47
7.1.2. 2005eko ekitaldian lanean jardun duten langileak	47
7.1.3. Giza baliabideei buruzko txostena	48
7.1.4. Egitura organikoaren araua eta lanpostuen arauzko hornidura prestatzeko, balorazio-sistemari buruzko araua lantzen	49
7.2. AURREKONTUAREN, KONTABILITATEAREN ETA ONDAREAREN KUDEAKETA	49
7.2.1. 2005eko aurrekontua	49
7.2.2. 2005eko aurrekontuaren exekuzioa	50
7.2.3. Aurrekontuen kudeaketari buruzko Instrukzio batean lanean	51
7.3. BALIABIDE MATERIALAK	51
7.3.1. Egoitza	51
7.3.2. Altzarien lehiaketa	52
7.3.3. Beste zenbait kontratu txiki	53

7.4. IDAZKARITZA OROKORRAREN BESTE ZENBAIT JARDUERA	53
8. KONTSEILU AHOLKU-EMAILEA	55
8.1. EGINDAKO BILKURAK	55
8.2. ANTOLAKETAKO ETA FUNTZIONAMENDUKO ARAUAK PRESTATZEN	56
ERANSKINAK	59
I. ERANSKINA.DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOA ZIFRATAN	61
AI-I.Datu Pertsonalak Babesteko Erregistroaren zifrak	63
AI-II. Aholkularitza Juridikoa eta Ikuskaritza Unitateari buruzko zifrak	71
AI-III. Aurrekontuen exekuzioari buruzko datuak	74
II. ERANSKINA. ARAUAK ETA XEDAPENAK	77
AII-I. 308/2005 Dekretua, urriaren 18koa, otsailaren 25eko 2/2004 Legea garatzen duena.	
AII-II. 309/2005 Dekretua, urriaren 18koa, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Estatutua onartzen duena.	
AII-III. Ebazpena, 2005eko azaroaren 28koa, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariarena, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren egitura organikoa garatzeko dena.	
AII-IV. Ebazpena, 2005eko uztailaren 21ekoa, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariarena, eredu normalizatuak ezartzen dituena.	
AII-V. Ebazpena, 2005eko irailaren 12koa, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariarena, Bulegoko datu pertsonaletarako fitxategiak sortzen dituena.	

1. Aurkezpena

2005eko oroitza-txosten hau, berez, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren jarduerari buruz egin den urteko lehen oroitza-txostena dugu; izan ere, 2004. urteari buruzkoan, hastapenak, hau da, hilabete gutxitan egindako lanak, jaso ziren; hitz bitan esanda, 2/2004 Legeak sortu zuen organo berria osatzeko eta taxutzeko egindako lanen edukia.

Oroitza-txosten honek jaso duen epealdian ekin diogu, beraz, planifikatuta genuena gorpuzteari eta organo berri hau behar bezala finkatu dadin zimendu sendoak eraikitzen ahalegindu gara. Lantalde txikia izan gara erakunde honen hazia, presarik gabe, baina atsedunik hartu gabe jardun dugu lanean, poliki-poliki, erabat konprometituta eta gogo biziz.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiek izan duten garapen izugarriagatik, azken urte hauetan datu pertsonalak tratatzeko zabaltzen ari den berebiziko aukeragatik eta horrek guztiak sorraraz ditzakeen arazoengatik, datu pertsonalen babesa, legearen nahiz jurisprudentziaren alde-tik, Oinarrizko Eskubide autonomo bilakatu da.

Teknologiak dakarzkigun egoera berriak eta horien ondorio juridikoak hautemateko moduan kontraesanak daude. Alde batetik, herritarrek normaltasun osoz hartzen dituzte eta zenbaitek pentsatuko du horiek erabiltzeak arriskuak ekar ditzaketela, baina beste zenbaitek ez. Beste aldetik, desoreka handia sortzen ari da, bai gizartean (eten digitala), bai norbanakoaren baitan (teknologia mailako gizaki analfabeto berriak) eta herrialde garatuen eta azpigaratuen arteko aldeak egunetik egunera handiagoak dira. Egoera horrelakoa izanik, aldarrikatzen diren Oinarrizko Eskubideen eta Askatasun Publikoen printzipioak bete daitezen, ahalegin handiak egin eta aukerak eskani behar dituzte gizarte demokratikoek.

Europako herrialdeok jakin dugu nola erreakzionatu eta Europako Kontseiluaren 108 Hitzarmena eta Europako Parlamentuaren eta Europako Kontseiluaren 95/46/CE Arteztaraua aplikatu ditugu. Egindakoa hor dago baina lanean jarraitu beharko dugu, garapen teknologikoek eta planteatuko diren arazo juridikoek etengabe egunean jartzea eskatuko baitigute.

Gauzak horrela, kontrol-agintaritzakoei dagokigu legea aplikatzea eta datu pertsonalak babesteko kultura sustatzea. Horretarako, honako eginkizun hauek ditugu: gizartea sentiberatu, herritarrei beren eskubideak jakinarazi, eskubide horien zaindaritza-lanak egin, erakunde p**u**blikoetako arduradunak, zuzendaritza-kideak eta funtzionarioak prestatu eta helburu horretara bideratutako politika publikoak dinamizatu. Helburu horiek betetzea lehenetsi ditugu gure jardueren artean.

Beste alde batetik, datuen babeserako alorrean kultura berria ezartzeko, jakin behar dugu ez dela nahikoa erakundeak, besterik gabe, edo zuzendaritzako kideak soilik kontuan hartzea. Batez ere, Euskal Autonomia Erkidegoko langile publikoak izan beharko ditugu kontuan, talde horretakoak baitira, hain zuzen, funtsezko tresna, Administrazioa errazagoa, azkarragoa, eraginkorragoa eta legearekiko erabat begirunetsua izan dadin. Horregatik bada, behar-beharrezkoada langile horiei prestakuntza egokia eman diezaiegun datuak babesteko araugintzaren alorrean, baina, batez ere, ezinbestekoa da gai horretako printzipioez jabetaraztea eta jakin dezatela, eta bere egin, euren jardueraren ondorioz jakin ditzaketen datu pertsonalak ezinbestean direla isilpekoak.

Administrazio publikoak kalitate eta hobekuntzarako hainbat prozesutan daude murgilduta. Ziur gaude modernizatzeko ahalegin horretan erabateko faktore positiboa dela datu pertsonalen babesarekiko errespetoa.

Baliteke datuak babesteko xedapenek eragitea administrazioaren antolaketari edo kudeaketari, baina, funtsean, Oinarrizko Eskubide bat jasotzen dute, eta eskubide horrek Administrazio Publikoen jardunearen oinarri izan behar du. Arduradun publikoei argi esan behar diegu datu pertsonalak babestea ez dela mehatxua gure administrazioen eguneroko kudeaketa-lanetarako, eta are gutxiago da prozesuak zailtzen dituen eragozpena edo jarduera berriei ekiteko oztopoa. Aitzitik, bihur dezagun Eskubide horren egokitzapena zerbitzu publikoa hobetzeko aukera.

Datu pertsonalak herritarrarenak berarenak dira, eta administrazio publikoak datu horien gordetzailerik ez gara, izan ere datu horiek behar ditugu legez ezarrita dauzkagun eskumenak bete ahal izateko. Administrazioen “ohitura txarra” izan da informazio pertsonal oso zabala biltzea, eta askotan muga gainditu dugu, bai kalitateari eta bai kantitateari dagokionez ere. Xedea ona zen,


esleituta dauzkagun eskumenak kudeatu eta bete ahal izateko eta programa berriak abiarazi ahal izateko. Baina beste garai batzuetan gaude. Orain, inoiz baino beharrezkoagoa da jarduera berriak abiarazi aurretik informazio-beharrak egoki planifikatzea, eta horretarako beharrezkoak eta egokiak diren datuak erabili, baina ez, ordea, behar ez direnak.

Ona litzateke datu pertsonalak biltzearekin zerikusia duen guztia egoki txertatzea estrategia-planifikazioan, agintaritza-koadroetan eta prozesuen metodologian. Horrela izatera, bi helburu beteko lirateke: batetik, legeak behartzen gaituen Oinarrizko Eskubidea errespetatuko genuke erabat, eta, bestetik, eraginkorragoak izango ginateke, eta, askotan, eragingarriagoak ere bai.

laz, oroitza-txostenaren izenburua izan zen *“Bidean abiatuta”*; orain, esan genezake *“ibili gabiltza”*, baina badakigu iraupen luzeko lasterketa dela, eta urtero-urtero eman beharko ditugu kontuak, atzera begiratu, egindako bidea zein den ikusteko, eta aurrera ere bai, norabidea zuzendu eta aurrera jarraitu ahal izateko.

Iñaki Vicuña de Nicolás

Zuzendaria



2. 2/2004 Legea eta bere araugintza

2/2004 Legeak, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa (aurrerantzean 2/2004 Legea eta DBEB) sortzeari buruzkoak aurreikusten zuen, besteak beste, bere 9.1 eta 10.1 artikuluetan, Lege horren araugintza egin behar zela, Legea bera zehazteko eta mugatzeko. Horrela, bada, 2005ean zehar, ondorengo arauak onartu dira:

2.1. 308/2005 Dekretua, urriaren 18koa, otsailaren 25eko 2/2004 Legea garatzen duena.

Dekretu honek, azaroaren 16ko EHAAren 218. zenbakian argitaratu zenak, 2/2004 Legea garatzen du eta berariazko administrazio-prozedurak ezartzen ditu, informazio-autodeterminazioa deiturikoaren eskubideak erabili ahal ditzaten herritarrek.

Lau kapitulutan honakoa arautzen da:


- Dekretuan ezarritakoaren aplikazio-eremua eta datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiak jakinaraztea DBEBri.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekiko harremanetan, lehenengo auzialdian, euskal herritarrek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, baliogabetzeko edo horien aurka agertzeko eskubideak erabiltzeko prozedurak,
- DBEBren aurrean, bigarren auzialdian, eskubideen babesa lortzeko prozedurak, eta
- Bulego horrek gauzatu behar duen prozedura zigortzailea.

2.2. 309/2005 Dekretua, urriaren 18koa, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Estatutua onartzen duena

Datuak Babesteko Euskal Bulegoa abian jartzeko beharrezkoa den antolaketaren diseinua ezartzen duen Estatutua onartu du Dekretu honek. Era berean, jarduteko nahikoa tarte uzten du, behar bezala funtzionatuko badu, DBEBk berak beharrezko autoantolaketa ahalak erabili ahal ditzan. Halaxe egin zen aurrerago, DBEBren egitura organikoa zehaztuko zuen zuzendariaren azaroaren 28ko Ebazpenean (EHAA, 247.zk., 2005eko abenduaren 29koa).

Bost kapitulutan zehar, honakoa aztertu eta zehaztu da:

- DBEBren izaera eta araubidea,
- Datu pertsonalak babesten dituzten legeak eta erregelamenduak behar bezala aplikatu daitezkeen eman ditzakeen jarraibideak eta gomendioak,
- bere barne-antolamendua, zuzendaria eta Kontseilu Aholku-emailea oinarri dituela eta baita Datuak Babesteko Erregistroa ere,
- ikuskaritza eta
- ekonomia-araubidea, ondarezkoa eta langileena.



3. Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren egitura

3.1. Ebazpena, 2005eko azaroaren 28koa, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariarena, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren egitura organikoa garatzeko dena.

2/2004 Legearen 10.1 artikulua ezartzen du Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Lege horretan eta bere Estatutuan xedatutakoaren arabera arautuko dela. Aurreko ataletan esan dugun bezala, urriaren 18ko 309/2005 Dekretu bidez onartu zen DBEBren Estatutua.

Aipatutako Estatutuak Bulegoaren oinarritzko antolaketaren diseinua ezartzen du eta, era berean, jarduteko nahikoa tarte uzten du, behar bezala funtzionatuko badu, DBEBk berak beharrezko auto-antolaketa ahalak erabili ahal ditzan. Estatutuaren 10. artikulua honakoa dio: *“Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren egitura organikoa hierarkikoki zuzendariaren menpe dauden organoekin osatzen da; aholkularitza, izapidetzea, ikuskaritza, idazkaritza eta erregistroa dira organo horien zereginak” eta “Aipatutako egitura organikoaren garapenean, zuzendariaren ebazpenez, lehenik Kontseilu Aholku-emaiaren txostena eginda, funtzionalki eta hierarkikoki zuzendariaren menpe dauden beste unitate batzuk existitzea aurreikusi ahal izango da, hala nola hauei esleitutako zereginak”.*

Horregatik, eman zuen Zuzendariak azaroaren 28ko Ebazpena, DBEBren egitura organikoa garatzen duena. Ebazpen horretan nabarmentzekoak dira honakoak: zerbitzu publiko bat eskaintzen duenez zein irizpiderekin jardungo duen Bulegoak (arrazoien azalpenean aipatzen dira irizpideok), zein egitura organiko ezarriko duen eta zerbitzu bakoitzari zein zeregin emango zaion.

3.2. Zerbitzu publiko bat ematen duela-eta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak bere jardunean erabili beharreko irizpideak.

DBEBk zerbitzu publiko bat eskaintzen duenez, azpimarratu beharra dago orain osatutako antolaketaren egituratik ondorengo jarduera-irizpideak erabili beharko dituela Bulegoak:

- Emandako zerbitzuaren kalitatea ebaluatzea, adierazleak ezarri eta horien jarraipena eginez, eta erabiltzaileen iritzia eta satisfazio-mailari buruzko galde-sortak egitea (bai herritarrei bai administrazioei).
- Ahalegin berezia egitea eraginkortasunez lanean jarduteko, bai administrazio publikoekin eta baita, datuen babesaren kontrolean, aginpidea duten gainerako guztiekin.

- Prozedura guztiak erraztu eta dokumenta daitezen bultzatzea, kudeaketak tresna informatikoen bidez eta sarea erabiliz egiteko bitartekoak eskainiz.
- Bertako langileei antolaketaren ikasketa erraztea eta lanean euren bikaintasuna saritzea, leihakortasuna eta prestakuntza bultzatuz.
- Berebiziko garrantzia ematea jokabide proaktiboari, legegintza betetzeko eta datuen babesean kultura berria ezartzeko laguntza emanez administrazioei.

3.3. Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren egitura organikoa

Ebazpenaren bigarren artikuluan, bere egitura organikoa zehazten da:

“1.- Aurreko artikuluan zehaztutako zereginak burutzeko, Datuak Babesteko Euskal Bulegoa honako organo hauek osatzen dute:

a) Kide bakarreko organoa. Zuzendaria.


b) Kide anitzeko organoa. Kontseilu Aholku-emailea, legean ezarritako moduan.

2.- Hierarkikoki Zuzendariaren mende dauden administrazio-unitateak honakoak dira:

a) Datuak Babesteko Erregistroa eta teknologia berriak.

b) Lege-aholkularitza eta ikuskaritza..

c) Idazkaritza orokorra.”



3.4. Zereginak

DBEBren **Zuzendariak** berau zuzentzen eta ordezkatzzen du. Bere barne-eremuan, bere mende dauden administrazio-unitate guztiak zuzendu, koordinatu eta kontrolatzen ditu eta berari dagokio, halaber, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren eginkizunak gauzatzeko behar diren ebazpenak, jarraibideak eta gomendioak agintzea.

Datuak Babesteko Kontseilu Aholku-emailea, 2/2004 Legearen 14. artikuluan aurreikusten den gisan, DBEBren Zuzendariaren aholkularitzarako kide anitzeko organoa da, 2/2004 Legeak eta DBEBren Estatutuak esleitzen dizkion zereginak ditu eta bere antolaketako eta funtzionamenduko arauen bidez arautuko da (onartzeko bidean).

Datuak Babesteko Erregistroa eta teknologia berriak unitatea 2/2004 Legearen 18. artikuluan aurreikusitako Datuak Babesteko Erregistrora atxikita dagoen Bulegoaren administrazio-unitatea da eta aipatutako Legearen aplikazio-eremuan dauden datu pertsonaleko fitxategien existentziaren publizitatea sustatzea dagokio. Halaber, eta datu pertsonaleko fitxategiei buruzko arautegiaren betearazpena zaintzeko xedearekin, sektorekako ikuskaritza funtzioa eta kolaboratzaileen sarea-ren koordinazioa burutuko ditu, datuak babesteko arloan. Bestalde, teknologia berriekin zerikusia duten ikerlanak egin eta Bulegoaren beraren Sistemen Planaren jarraipena burutzeko ardura izango du.

Lege-aholkularitza eta Ikuskaritza Unitatea Bulegoaren administrazio-unitatea da. Beroni dagokio ikuskaritza-lan zirkunstantzialen ahaletik eta sustapenetik eratorritako zereginetan jardutea eta sartu, aurka egin, zuzendu eta ezerezteari buruzko euren eskubideak babesteko hiritarrek egindako erreklamazioei bide ematen dieten prozedurak izapidetzea, baita, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitakoaren arabera, herri-administrazioek, erakundeek, entitateek eta korporazioek araua hautsi duten edo ez kontrolatzeko zeregina ere. Halaber, administrazio-unitate honen eskumen dira txostenak egitea, kontsultei erantzutea eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aholkularitza zerbitzua.

Idazkaritza Orokorra giza baliabide eta baliabide materialen kudeaketa, kudeaketa ekonomiko-administratiboa eta informazio orokorra, Bulegoko gainontzekoentzat prestakuntza eta agiriekin zerikusia duten bestelako zereginen kudeaketa eta laguntza eta betearazpen edo tresnen funtzioen ardura duen administrazio-unitatea da.



4. Erakundeekiko Harremana eta Komunikazioa

4.1. DBEBren zuzendaria Eusko Legebiltzarrean agertzea

2005eko azaroaren 24an Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendaria Eusko Legebiltzarrean Erakundearen eta Barne Batzordearen aurrean agertu zen, berak horrela eskatuta, 2004. urteko jardueren oroitza-txostenaz eta DBEB erakundea sortu zenez geroztiko egintzaz informazioa emateko.

Hurrengo kontuez eman zuen informazioa zuzendariak:

- Ex novo sorturiko organo baten hastapen berezia eta Bulegoaren izaera juridiko berezia duen organismo bat egituratzearen berariazkotasuna.
- Datu pertsonalak babesteaz dagozkion hainbat aspektu.
- 2004. urteko oroitza-txostena.
- Agerpen-egunera arte buruturiko egintza.

Bestetik, Legebiltzarrekiko lotura-bideak (informazioa igortzea, aldizkako agerpenak, urteko oroitza-txostenak azaltzea, etb.) aztertu eta, ondoren, parlamentarioek eginiko galderei erantzuna eman zien.

4.2. Irudi korporatiboa

2005eko maiatzaren 18an, “DBEBk irudi korporatiboa diseinatzearen gaineko oinarritzko kontuak” aurretiazko analisi-agiriari amaiera eman zitzaion. Bertan, besteak beste, “irudi korporatiboaren diseinua eta, geroago, komunikazio-plangintza sustatzeko proposamenak eskatzea” premiazkoa zela berretsi ondoren, DBEBren Nortasun Korporatiboari buruzko gidaliburua kontratatzean aintzat jo beharreko oinarritzko irizpideak ere zehaztu ziren, Bulegoa berehala eta zehazki identifikatzea ahalbideratuz.

Hurrengo helburuak ezarri ziren:

- DBEB era egokian identifikatu ahal izatea.
- DBEBk erabili beharreko dokumentazio osoan irudi berria zehaztea, bai oinarritzko paperetan, baita karpeta zein formatu elektronikoetan ere.


- DBEBrekin harremanetan jardun beharreko administrazioek Bulegoa behar bezain ongi ezagutzea.
- Hiritarrak ere argi eta garbi identifikatzea.

Era berean, irudi hori zehazteko balioko zuten baldintzak zehaztu ziren, hala nola:

- Irudia positiboan. Organo zigortzailearen ikuspegi negatiboa baino areago, positibo eta proaktiboa baina, hori bai, benetakoa. Alderdi zigortzailearen gainetik babes-irudia lehenestea.
- Hiritarrendik gertukoa. Herritarraren eskubideak zaintzea, informazioa ematea, datuen babesean diharduten beste hainbat erakunderekiko harremanetan laguntzea eta bere datuen behar bezalako erabilera babestea ditugu eginkizunak.
- Erakunde serio baina modernoa.
- Berehala eskuratzeko modukoa.
- Informatikarekin eta teknologia berrieekin lotua.

Nortasun korporatiboari buruzko gidaliburua Hélice Comunicación enpresari eskatu zitzaizlarik, Bulegoarekin harreman estuan burutu zen 2005eko uztailetik azarora arte.

Lan horren emaitzatik, marka eratzea nabarmen dezakegu:



- IKURRA
- Ikurren sistema
- Markaren indarra ikurren baitan dago. Ikur hori erakundeetako zerbitzuak dute zehazki erabiltzeko. Euren zehazki erabiltzeko, euren zehazki erabiltzeko, euren zehazki erabiltzeko.
- DGBB antolatzen da
- Eusko Administrazio Publikoaren datuak
- pertsonen baseen erabilera
- posibilitateak.
- Kontrol-egintza du arda
- honetan, Informazioa
- funtzioak tresna du bere jardunak.
- Eusko Autonomia Erkidegoa
- du jardunak-espazio.

4.3. Web orria

Web orria sortzeko, Administrazioa Eraberritzeko Bulegoarekin hitzartu da Bulegoa www.euskadi.net erakunde-atarira gehitzea; horrek ekarriko du, batetik, bere euskarrirako sortutako tresnak erabiltzea (edukien kudeatzailea eta atarien administrazioa) eta bestetik, aipatutako atarirako Bulegoaren estilo eta nortasunari buruzko irizpideak hartzea.

Uztailean jarri zen abian orriaren lehen bertsioa, eta atalak hauexek izan ziren:

- Datuak Babesteko Euskal Bulegoa
- Datuak Babesteko Erregistroa
- Herritarrak
- Administrazioak
- Dokumentazioa
- Berriak
- Gertaerak

Lehen bertsio horretan sartu ziren funtzionalitateen artean, aipatzekoa da inprimakiak eta Datuak Babesteko Erregistroari Fitxategien auto-aitorpena egiten laguntzeko programa deskargatzeko eskainitako aukera, fitxategien arduradunek erabil dezaten.

4.4. Hitzarmenak

2005eko irailaren 28an DBEB eta Euskadiko Udalen Elkarte (EUEDEL) erakundearen arteko elkarlanerako hitzarmen markoa sinatu zen, udal eremuan datu pertsonalak babesteari dagokionez, elkarlanerako markoa ezartzeko helburuz, aspektu hori funtsezkoa baita hiritarrentzat. Hona dokumentuaren edukia, laburbildurik:

Betebeharrak	<p>EUDEL</p> <p>Prestakuntzako eta informazioko saioak koordinatu eta kudeatzea. DBEBk ateratako dokumentazioaren hedakuntza erraztea.</p> <p>Erakunde honetako bazkide diren udalei etengabe arreta ezar dezaten eskatzea.</p> <p>Euskal udalen kontsultak antolatu eta bideratzea.</p> <p>Lanabes eta ereduzko agiriak eratzea.</p> <p>DBEB</p> <p>Informazioko saioak antolatzea.</p> <p>Datu pertsonalen babesari buruzko jardunaldiak egitea.</p> <p>Hurrengo alderdietan indarreko legeria bete dadin, aholkularitza ematea:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Datu-fitxategien sorrera, eraldaketa eta suntsipena • Segurtasun-neurriak betetzea • Zerbitzuak emateko kontratuak egitea • Eskubideen edukia eta egikaritzeko forma
Aplikatzeko era	<p>Urtarrila baino lehenago, urteko eguneratze-plana eta honen aurrekontua egitea</p> <p>Ariketa bakoitzean, dagokion aplikazioa</p>
Laguntzaile-sarea	<p>EUDEL eta DBEB erakundeek interesa agertzen duten udalei, datuak babestuko duen laguntzaile-sarea sortzea planteatuko diete, euskal udalen jarduera eta zerbitzuetan datu pertsonalak babesteko lanabesen diseinu eta erabilera erraztu eta optimizatzeko jomugaz.</p>
Jarraipen Batzordea	<p>Erakunde horietako kideek osatutakoa</p>
Indarraldia	<p>Sinatzean sartuko da indarrean eta ez du muga jakinik izango</p>

Era berean, 2006. urtean dagozkien erakunde edota enpresekin sinatzeko zain geratu ziren hainbat hitzarmen ere negoziatu ziren:

- Euskal Herriko Unibertsitatearekin.
- Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa, IZENPE,S.A.
- Comisión de Libertades e Informática (CLI).
- Sociedad Española de Informática de la Salud (SEIS).

4.5. Nazioarteko eta Europako akreditazioa eta nazioarte mailako foroetan esku hartzea

Bidezko tramiteak burututa eta Datuen Babesaren Komisarioen Nazioarteko Konferentziaren (Conférence Internationale des Commissaires à la Protection des Données Comité de Vérification / International Conference of Data Protection Commissioners Credentials Committee) aurrean eta Datuen Babes Kontuetako Agintarien Europar Konferentziaren aurrean (Conference of European Data Protection Authorities) DBEB kontrol-agintaritzak gisa onartua izan zedin eskatuta, behar bezala akreditatua eta Konferentzia horien baitan onartua gertatu zen.

Bulegoak parte hartu zuen bi Konferentzien urteko ohiko saioetan gauzatu zen akreditazioa:

Pribatutasuna eta Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Nazioarteko Konferentzia (Nazioarteko XXVII Konferentzia), irailaren 14tik 16ra Suitzako Montreux-en egin zena, lelo honekin: *“Mundu globalizatuan eta aniztasuna aintzat harturik, datu pertsonalak eta bizitza pribatua babesteko eskubide unibertsala”*. Era berean, hurrengo alderdiak ere azpimarra daitezke:

- Datuen babesaren alorreko 150 ordezkari esku hartu izana. Lehen saioetan, alor pribatuko beste horrenbeste ordezkari gehitu zitzaizkien.
- Hurrengo gaiak sakon aztertu ziren:
 - Datuen Babesa eta Segurtasuna (telekomunikazioetako datuen erregistroa, hainbat agintari nazionalen arteko informazio-trukea egiteko neurriak).
 - Teknologia berrien gorakada aurrera doala eta, datuak babestearen printzipioak duen gaurkotasuna (hirugarren belaunaldiko arauak eratzeke premia).

- Datuen babeskuntza alorreko babes juridikoa ezartzeko premia (lanabes unibertsalaren premia, kontu hauetan nazioarte mailako araua xedatzeko premia).

Krakovian (Polonia) apirilaren 25 eta 26an egin den **Datuen Babeserako Europar Agintarien Udaberriko Konferentzian**, onetsi zenetik hamar urte igaro diren honetan, 95/46/CE Arteztarauaren indarraldia aztertu zen eta, bestetik, Europar Batasuneko estatuen artean barne-arazo, segurtasun eta justizia alorretako informazioa (“hirugarren zutabea”) partekatze kontuetan sakondu ahala, datu pertsonalak prozesatzeko arauetan batasuna eta koherentzia mantentzeko dagokion “Krakoviako Adierazpena” onetsi zen.

DBEB erakundeak, beste aldetik, Montrealen (Kanada) urriaren 17 eta 18an, bertako Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko Herri Zuzenbidearen Zentroak antolatu zuen **Séminaire hispano-canadien de Protection des données personnelles et administration électronique** izenekoan parte hartu zuen; mintegian Espainiako Bulegoen hainbat ordezkari ez ezik, Kanadako Datuen Babeserako Komisario Federalak eta unibertsitate alorretako zein administrazio publikoetako beste zenbait ordezkari ere parte hartu zuten.

4.6. Datu-babes kontuetan, mintegien eta bestelako jardueren antolakuntza

4.6.1. Estatuko datuak babeste kontuetako Kontrol-agintaritzen Konferentzia

Abenduaren 12an DBEBren egoitza berrian Estatu espainiarreko Datu-Babeskuntzan diharduten Bulego guztien arteko lan-saioa egin zen.

Marko horretan Bulegoetako zuzendariak Kontrol-agintaritzen urteko bilera instituzionalizatzearen egokitasuna aztertu zuten; jarduera horren helburuak, Datuen Babesean diharduten bulego guztien artean elkarlanean aritzea eta irizpideak koordinatzea lirateke.

José Luis Piñar Mañas Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren zuzendariak, Antonio Troncoso Reigada Datuak Babesteko Madrilgo Bulegoko zuzendariak, Esther Mitjans i Perelló Datuak Babesteko Kataluniako Bulegoko zuzendariak eta Iñaki Vicuña de Nicolás Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariak, lau bulegoetako SIDIR-eko (erregistroen arteko informazio-trukerako sistema) aholkulari juridiko eta arduradunekin batera, Gasteizen lan-jardunaldia izan zuten.

Saioan honako kontuak jorratu ziren:

- Zuzendari taldea
 - Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoa garatzeko Araudiaren zirriborroaren azterketa
- Aholkulari Juridikoen taldea
 - Udal Errolda
 - Profesionalen elkargoetan fitxategi publiko eta pribatuak mugatzea
- SIDIR taldea
 - Erregistroa soiltzea, aztergai
 - SIDIR arkitektura
 - On-line artxiboen kudeaketa, egiaztatgiri digital eta guzt

4.6.2 Alkate eta Zinegotzientzako Datu Babesari buruzko I. Jardunaldia

Irailaren 28an Bilboko Erakustazoka zaharreko Altube Aretoan, Alkate eta Zinegotziei zuzenduriko Batu Babesari buruzko I. Jardunaldia egin zen, DBEBk antolatuta, EUDEL eta HAEEn laguntzarekin.

Bertan hurrengo hizlariak hartu zuten esku:

- **Karmelo Sainz de la Maza Arola** Euskadiko Udalen Elkarteko (EUDEL) lehendakariak.
- **Iñaki Vicuña de Nicolás** DBEBren zuzendariak; honek, “Tokiko korporazioak eta datuen babesa” gaia jorratu zuen, DBEBren ikuspegitik.
- **Daniel Inneraty** Zaragozako Unibertsitateko Filosofiako irakasle titularra eta Literaturako Sari Nazionala 2003 (saiakera-modalitatea) irabazi zuenak “Botere Kooperatiboa. Gobernu-forma berriak udal-administrazioetan” gaia aztertu zuen.
- Bilbo (**Ibon Areso**), Gasteiz (**Alfredo Iturritxa**) eta Donostiako (**Kepa Korta**) udalerrietako ordezkariak, HAEEn zuzendari den Jon Koldobika Urrutia Mingok koordinaturik, “Datu pertsonalen babesa eta horren eragina jarduera politikoan. Aginte-kabinetiko ikusmoldea” gaiari buruzko mahai-inguruan esku hartu zuten.

- Jardunaldiei amaiera eman zien Basauriko alkate eta DBEBko Kontseilu Aholku-emailean udalen ordezkari den **Rafael Ibarguen Gonzálezek**.

Jardunaldian parte hartu zuten 90 kideei Autonomia Erkidegoan datu pertsonalen babesari buruzko dokumentazioa eman zitzaien.

4.6.3. II Foro sobre Protección de Datos de Salud

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, DBEB eta Osasunerako Informatikaren Elkarte Espainiarrak (SEIS) antolaturik, Bilbon 2005eko otsailaren 16 eta 17an garatu zen.

Elkarte horren sorrera-helburua, osasun sektorean informazio eta komunikazioen teknologien garapen eta ezarpena lagunduko duten egintzak gauzatzea da; horretarako, osasun alorrean teknologia garatzeko interesgarritzat jotzen dituen jarduerak —datuen babesa, besteak beste— bultzatuko ditu.

Foroaren jomuga, osasun zentroetako profesionalengan (gerenteak, zuzendaritza alorreko langileak, sendagileak, informatikariak, informazio sistemen erantzuleak eta gainerakoak) berez daukaten eta gainera onartu behar duten arduraren, segurtasunari dagokionean (osasunari buruzko datuen konfidentzialtasun eta osotasunean) batik bat, sentsibilizazioa eta kontzientzia harraraztea izan zen.

4.7. *Datuen babesaren alorreko estatu espainiarreko beste hainbat bulegorekiko kolaborazioa*

Datuak Babesteko Madrilgo Autonomia Erkidegoko Bulegoak antolaturik, 2005eko urriaren 7an egin zen **Datu Pertsonalak Babesteko Erkidegoetako Bulegoen II. Topaketan** esku hartzea. Bertan hurrengo kontuak aztertu ziren:

- Kontrol alorreko agintaritzen independentzia
- Datuak babeste kontuetan, aurreikusitako estatutu-erreformen eragina
- Honelako beste bulego zenbait sortzeari dagozkion perspektibak

SIDIR (Sistema de Información de Intercambio Registral) lan-taldearen hainbat saiotan esku hartzea.

Lan-saioak Datuak Babesteko Madrilgo Autonomia Erkidegoko Bulegoaren eta Datuak Babesteko Kataluniako Bulegoaren egoitzetan, finkaturik dauden bulegoen prozedurez eta lan-metodoez informazioa jasotzeko helburuz.

4.8. Datu pertsonalen babesari buruzko hitzaldi, mintegi eta bestelako jardueretan esku hartzea

- **“Datuen Babesa Administrazio Publikoetan”** gaiari buruzko Lehen Jardunaldiak, Oviedon, 2005eko otsailaren 10ean.

APICE (*Asociación para la Promoción de la Investigación y la Consultoría Estratégic*) izeneko elkarteak antolaturiko kongresu honetako helmugetako bat, datuen babesari buruzko legerian sakontzea eta alor honetan erkidego eta estatu mailako erakunde publikoak garatzen ari diren jarduerak erakustea izan zen. Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren zuzendariak hartu zuen parte, Madril, Katalunia eta Euskadiko kideekin eta *Comisión de Libertades e Informática* izeneko erakundearen ordezkariekin batera.

- **“Tokiko Polizia eta datu pertsonalen babesa”** jardunaldia. Erandio, 2005eko martxoaren 16an, Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailak antolatua.
- **“Datuak Babesteko Euskal Bulegoa eta Arartekoa”** hitzaldia Donostian, 2005eko maiatzaren 13an, EHUKo Zuzenbide Fakultateak antolatua.
- **“Datu pertsonalen babesa enpresan”** jardunaldia Gasteizen, 2005eko maiatzaren 24an, Arabako Merkataritza Ganbarako Prestakuntza eta Aholkularitza Zentroak antolatua.
- **“Agencias de Protección de Datos Autonómicas. Competencias”** jardunaldia. Santiago Compostelakoan, 2005eko ekainaren 6an, TechBusiness Week. Management & IT-ek antolatua.
- **“Hacia un nuevo Reglamento de la Ley Orgánica de Protección de Datos”** uda-ikastaroak, Santanderren, 2005eko ekainaren 27tik uztailaren 1era arte, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak eta Menendez-Pelayo Nazioarteko Unibertsitateak antolatuak.

- **“Teknologia berrien erabilpenen alderdi legalak”** jardunaldia, Donostian, 2005eko urriaren 4an, Gipuzkoako Merkataritza Ganbarak antolatua.
- Jornada **“Datuen babesa, ardura sozial korporatiboa”** jardunaldia Zaragozan, 2005eko urriaren 27an, Comisión de Libertades e Informática (CLI) batzordeak antolatua, Aragoiko Gobernuaren babespean.
- **“Datuen babesa Toki-administrazioan”** jardunaldia Valentzian 2005eko azaroaren 16an, bertako Unibertsitateak (Fundació Universitat-Empresa) antolatu eta Valentziako Generalitat-ek babestua.
- **“Datuen babesa Toki-administrazioan”** jardunaldia Bartzelonan 2005eko azaroaren 25ean, Bartzelonako Udalak antolatua, zerbitzu juridikoak prestatzeko ikastaroen barnean.

4.9. Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren parte hartzea Kontseilu Aholku-emailean

DBEBko zuzendariak, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren Kontseilu Aholku-emaileko kide den aldetik, 2005eko uztailaren 12an eta abenduaren 19an eginiko saioetan esku hartu zuen.

4.10. DBEBk bere eskumenaren peko erakundeei Bulegoa aurkezteko kanpainaren diseinua

2005. urtearen kondarrean, DBEBren eskumenaren eragina jasotzen duten administrazioei Bulegoa aurkezteko kanpainari ekin zitzaion.



5. Datuak Babesteko Euskadiko Erregistroa

5.1. *Datuak Babesteko Erregistroaren Kudeaketa Sistema*

2.004ean burututako Aldez Aurreko eta Bideragarritasun Azterketaren ondorioz, eta orduan hartu ziren ildoak aplikatuz (batetik, gainerako bulegoek garatu dituzten sistemekiko bateragarritasun funtzional ahalik eta handiena eta, bestetik, ahalegina ekonomizatzea arlo teknologikoan, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen plataforma komunak erabilita), Datuak Babesteko Erregistroaren kudeaketa sistemaren osagai nagusiak garatu dira 2005ean: auto-aitorpena egiteko laguntza-programa eta erregistroaren barne-kudeaketako programa.

Abiapuntu gisa Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren aplikazioak hartu dira, bertsio elebiduna teknologikoki egokitu eta garatu da, baina mantendu egin dira, era berean, estatuko gainerako kontrol-agintaritzen aplikazioekiko bateragarritasun teknikoa eta funtzio-prestazioak. Hori guztia garatu eta egokitzeaz Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea (Ejie, SA) arduratu da, 2.000. urtean izenpetutako hitzarmena dela-eta.

Auto-aitorpenerako laguntza-modulua (Visual Basic-ek garatua) Bulegoaren web orritik jaitsi daitekeen programa bat da. Programa horri esker, fitxategien arduradunek, horien laguntzaileek edo teknikari laguntzaileek, fitxategiak sortzen ari diren momentuan fitxategi bakoitzari buruzko datuak sar ditzakete, eta fitxategiaren zuzentasuna eta koherentzia balidatzen ditu programak berak. Datuak bete ondoren, programak DBEBra igortzeko aukera ematen du, Internet bidez nahiz euskarri magnetikoa posta arruntaren bidez igorritik; horrelakoetan ez da aitortzen jasotzen paperezko inprimakietan.

Erregistroaren barne-kudeaketako moduluak garapen erabat berria gehitu du, Internet bidez edo euskarri magnetikoan jasotako aitortpenak hartzeko eta prozesatzeko (Javan garatu da). Garapen berri hori Autonomia Erkidegoko Administrazioaren plataforma komunean integratzen da (erregistro-liburuetan zuzenean idatzita uztea) eta aurrez katalogatutako ereduaren oinarrituta ebazpenak ere sortzen ditu. Bestalde, erregistroko datu-basearen galdeketa-moduluak Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak lehendik zeuzkan sistemak aprobeztatu ditu, lehengo funtzionalitate berberak mantenduz.

5.2. *SIDIR Hitzarmenaren aplikazioa eta erregistroen arteko informazio-trukea*

2004. urtean, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak (AEPD) eta erkidegoetako hiru bulegoek

izenpetu zuten SIDIR Hitzarmena aplikatuz, 2005eko martxoaren 8an, lau bulego horien artean lan-saioa egin zuten. Bertan, hainbat erabaki hartu zituzten, besteak beste, erregistroen artean informazioa trukatzeko XML estandarrean oinarritutako formatuak erabiltzea eta komunikazioa bermatzeko, zerbitzu-mezuen protokoloa zein izango zen.

Sidir-XML trukerako formatu honetan oinarrituta, Datuak Babesteko Espainiako Bulegora aitortzen bidaltzeko modulu bat garatu da eta arestian aipatu dugun Erregistroaren kudeaketa-programaren barruan egongo da. Hartara, erregistro bakoitzak ematen dien inskripzio-kodeen erreferentzia gurutzatuak mantenduz, Datuak Babesteko Euskadiko Erregistroan egiten diren inskripzio guztiak AEPDrak bidaliko dira, Datuak Babesteko Erregistro Orokorrean sar ditzaten.

Era berean, Datuak Babesteko Euskadiko Erregistroak, hasierako datu-basea sortzeko, Datuak Babesteko Erregistro Orokorrean jadanik aitortuta zeuden fitxategiak erabili zituen eta, horretarako, 2005eko abuztuaren 1ean, gure eskumen-eremukoko organismo eta erakundeek erregistratuta zeuzkaten fitxategien kopia bat eman zion AEPDK.

5.3. Fitxategiak aitortzeko prozeduraren erregulazioa

Datuak Babesteko Euskal Bulegoari Legeak esleitzen dizkion zereginak eraginkortsunez bete ahal ditzan ezinbesteko tresna denez Datuak Babesteko Erregistroa, DBEBren Zuzendariak 2005eko uztailaren 21eko Ebazpena onartu zuen (EHAA, 165. zk., 2005eko abuztuaren 31koa). Ebazpen horretan, otsailaren 25eko Eusko Legebiltzarraren 2/2004 Legearen 18. artikulua garatuz, Datuak Babesteko Euskadiko Erregistroan fitxategiak sortu, aldatu edo ezabatzeke eskabideak egiteko eredu normalizatuak eta bitartekoak ezarri ziren.

Fitxategiak aitortzeko prozedura hau arautzerakoan, aintzat hartu da, batetik, administrazio publikoek bultzatu egin behar dituztela enplegua eta teknika eta bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoen aplikazioa eta, bestetik, e-Euskal Administrazioaren sustapena eta aurrerapena, administrazio horrek herritarrekin duen harremana hobetuko bada.

Ebazpen horrek onartu egin ditu inskripzio-eskabidearen eredu normalizatuak, paperean nahiz formatu digitalean; inskribatzeko eskabide-orri batek eta fitxategia jakinarazteko inprimaki batek osatzen dute eredu normalizatua. Eskabide-orria izenpetuta bidali beharko da, baina inprimakiak elektronikoki bete ahalko dira, DBEBk auto-aitortpena egiteko eskainiko duen laguntza-programa-

ren bitartez eta, hori egindakoan, Internet bidez edo euskarri magnetikoan bidali.

Erakunde eta organismo erantzuleentzako sinadura elektronikoa aurreratua erabiltzeko moduan denean, inskribatzeko ekabide-orra Internet bidez bidali ahal izateko aukera ere jaso du Ebazpen horrek.

5.4. Udalek beren betebeharrak formalak zenbateraino bete dituzten egiaztatzeko kanpaina

Fitxategiak aitortzeko prozedura arautu ondoren eta Eudelekin hitzarmena izenpetutakoan (4.3. atalean aipatzen da), Datuak Babesteko Erregistroko hasierako datu-basean agertzen ziren datu pertsonalen udal-fitxategien arduradun guztiengana jo zuen Bulegoak, ahal zen neurrian, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan ordurako aitortuta zeuden fitxategiak arautzen laguntzeko eta, bidenabar, honakoa azaldu zien:

- Datuak Babesteko Erregistroan beren fitxategiak inskribatu egin behar dituztela.
- DBEBk hainbat fitxategiren berri bazuela eta zein zen fitxategi horien egoera.
- Aipatutako uztailaren 21eko Ebazpenaren arabera, egon zitezkeen akatsak konpontzeko edo aitortpen berriak egiteko zein urrats eman behar ziren.
- Fitxategiak Datuak Babesteko Euskal Bulegoan baino ez zituztela aitortu beharko, DBEBn inskribatutako fitxategi guztiak AEPDko Datuak Babesteko Erregistro Orokorrean bidaliko zirelako eta, beraz, AEPDn ere inskribatzea ez zela beharrezkoa.

Udalek euren betebeharrak formalak bete behar dituztela gogorarazteko egindako kaipainaren ondorioz, 2005. urtearen bukaeraz geroztik, toki-administrazioek datuen babesari buruz egindako era guztietako galderek nabarmen egin dute gora.

5.5. Datuen babesean laguntzaile-sarea abian jartzea

Betebeharrak formalen betetzea sustatzerakoan, toki-administrazioekin sortu zen harremana aprobeztatu zuen Bulegoak adierazteko, erakunde bakoitzaren barruan, datuen babesean barnekoordinaziorako funtzioa jartzea nahiko lukeela.

Datuen babesean, laguntzaile horien helburu nagusia izango da, eurak dauden erakundearen barruan, datuen babesari buruzko barne-aholkularitza eta laguntza eskaintzea, fitxategien alderdi formalak kontrolatuz eta, hala badagokio, herritarrei euren eskubideak erabiltzen lagunduz, azken finean, datuen babesaren inguruko kultura zabalduz.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak datuen babeserako Laguntzaile-sarea sortuko du, prestakuntza jasotzen, beren helburuak planifikatzen eta kontrolatzen lagunduko die eta, horretarako, euren arteko tokaketak antolatuko ditu, eta jarduteko tresna eta protokoloak eskainiko dizkie, laguntzaile horiek dauden udalek beren betebeharrak errazago bete ahal ditzaten.

Horretarako, epe ertainera, DBEBk lankidetzarako ingurune pribatu bat ezarriko du bere Web orriaren bidez, errazagoa izan dadin berarekiko harremana eta jardutean izandako esperientzi eta urratsen trukea.

5.6. *Datuak Babesteko Erregistroko inskripzioak. Datuak eta koadroak*

5.6.1. Informazioaren jatorria

Lehenago aipatu dugun bezala, Datuak Babesteko Euskadiko Erregistroak Datuak Babesteko Erregistro Orokorrean jadanik aitortuta zeuden fitxategiak erabili zituen bere hasierako datu-basea sortzeko. Horretarako, 2005eko abuztuaren 1ean, gure eskumen-eremuko organismo eta erakundeek erregistratuta zeuzkaten fitxategien kopia bat eman zion AEPDk. Hala ere, 2005eko bigarren sei hilekoan zehar, hainbat erakundek (toki-administrazioak batik bat) beren aitortpenak AEPDri bidaltzen jarraitzen zutenez, bi erregistroen artean pixkanaka dibergentzia sortzen joan zen. Horrexegatik, 2005. urtearen amaiera aldera, bi bulegoetako Datuak Babesteko Erregistroak berriro sinkronizatzea erabaki zen, momentu horretatik aurrera DBEBn aurkezten ziren inskripzioak gehituz.

Bestalde, 2004ko Oroitza-txostenean, aztertutako epean sartutako fitxategiak mugatzeko, “Xedapena argitaratu zen data” irizpidea hartu zen kontuan. Dena den, aintzat izanik DBEBk ez duela fitxategiak arautzeko xedapenak aurrez jakinarazteko eskumenik, “Erregistroko inskripzio-data” ezartzea egokiagotzat jo da, Datuak Babesteko Erregistroaren jardueraren ikuspuntutik esanahi handiagoko datua delakoan.



Esandako bi arrazoi horiengatik, bada, I.I. Eranskinean agertzen diren zifrak eta aurreko ekitaldiko datu modura ondoren aztertu direnak ez datoz bat, zenbaitetan, joan den urteko Oroitza-txostenean argitaratu zirenekin. Era berean, 2005ean jasotako eta prozesatutako aitoren batzuk AEPDko datu-basearekin berriro sinkronizatu ondoren sartu dira Erregistroaren datu-basean, eta, horrenbestez, estatistikari dagokionez, hurrengo ekintaldian kontabilizatuta ageriko dira.

Aukera hori hautatu da, datuen azterketan irizpide bera mantentzearen eta hemendik aurrerako ekitaldietan datu homogeenak eskaini ahal izatearren.

5.6.2. Inskripzio-eskabideak

2005. urtean zehar, guztira 2.236 mugimendu egon dira (inskrizioak, aldaketak edo deuseztapenak), horietatik gehienak fitxategiak aldatzeko (1327, %59) eta gutxi batzuk fitxategiak deuseztatzeko (85, %4). Mugimendu horien arteko saldo garbiak (inskrizioei deuseztapenak kenduta) Erregistroan 739 fitxategi daudela azaltzen du. Kontuan izan behar da fitxategiak deuseztatzen diren gehienetan datuon tratamendua ez dela bertan behera geratzen, baizik eta aldi berean sortzen den beste fitxategi berri batean eraldatu edo sartzen direla datuok.

Aitortutako fitxategi gehienak Toki-administrazioak dira, hau da, egondako mugimendu guztien %88 izan dira. Bada, bestalde, aitoren kopuru handia (gehienez Eusko Jaurlaritzako eta Erakunde Autonomikoetako sailek egin dituzte, Eusko Legebiltzarak eta DBEBk berak, esaterako), 2005ean dagozkion fitxategiak arautzeko xedapenak argitaratu dituzten arren, berez, Erregistroan 2006 erregistratu direnak eta, horrenbestez, 2005ean kontabilizatu gabe daudenak.



5.6.3. Erakunde aitortzaileak



Datuak Babesteko Erregistroan fitxategien 842 arduradun ageri dira; horietatik gehienak (%91) Administrazio-organoak dira, %4 Erakunde Autonomiadunak eta %5 bestelako izaera juridikoa dutenak.

Fitxategi bakoitzaren aitortzearen, fitxategiaren arduradunaren esleipena zehatz-mehatz egiten bada ere (Zuzendaritza Orokorraren edo administrazio bulego zehatzaren mailan), Erakunde Aitortzaile Nagusiaren arabera, taldeka biltzea komenigarritzat jo da, hau da, barruko egitura organikoaren xehetasunak kontuan izan gabe. Horretarako, erakunde bakoitzaren IFK-ak hartu dira aintzat; Eusko Jaurlaritzari dagokionez, ordea, hura osatzen duten sailak ezberdindu egin dira.

Azaldu dugunagatik, Erakunde Aitortzaile Nagusien kopurua 248ra gutxitu da; Toki-administrazioaren eremuan egon da aldakuntzarik handiena, 2004. urtearekin alderatuz gero, %13,8 gehitu baita.


Oraingoan ere, Gipuzkoa da erakunde aitortzaile gehien duen Lurralde Historikoa eta bertan egon da, halaber, 2004. urtearekin alderatuta, urteko gehikuntzarik handiena (%21eko aldakuntza eta 17 erakunde berri).

Toki-administrazioek egindako aitortpenengatik dagoen arren erakunde aitortzaile gehiago, oraindik fitxategiak lehen aldiz aitortu ez dituzten 83 udal daude, nahiz eta 2004ean aitortpena egin gabe zeuden 91 udalekin alderatuta, %8,8 gutxiago diren.



5.6.4. Inskribatutako fitxategiak

Datuak Babesteko Euskadiko Erregistroan, guztira 3.120 fitxategi daude inskribatuta. Gehitutako 739 fitxategi garbiak, 2004. urtearekin alderatuta, %31ko gehikuntza erakusten dute.



Fitxategiak aitortu zireneko garaia kontuan hartuz gero, 3.120 fitxategi horiek denboran zehar banatuta azaltzen dituen grafikoak adierazten du pixkanaka berrikuntza sortzen ari dela, izan ere antzinako LORTAD indarrean egon zen lehen urteetan aitortu ziren fitxategi kopuruak behera egin du joan den urtearekin alderatzen badugu, hau da, 2005ean deuseztatu ziren fitxategi gehienak 1994ean aitortutako fitxategiak, tratamendua bertan behera utzi dutenak edo 2005ean sortutako fitxategi berrietan sartu direnak izan dira.

5.6.5. Inskribatutako fitxategiak erakundeka xehatuta

Eusko Jaurlaritzak 489 fitxategi ditu aitortuta eta 2004. urtearekin alderatuta, oro har, %8,9ko gehikuntza izan du; aitortutako fitxategi gehienak Osasun sailarenak dira.


Foru-administrazioaren egoera joan den urtekoarekin alderatuta ez da askorik aldatu; %2,4ko gehikuntza izan du, Gipuzkoako Batzar Nagusiek aitortu dituzten fitxategiengatik.

Oro har udalak izan dira 2005ean jarduera handiena izan dutenak; guztira 691 fitxategi berri aitortu dituzte eta gehikuntza, hortaz, %41,9koa izan da 2004. urtearekin alderatuta. Horien guztien artean, Gipuzkoako udalak nabarmendu behar dira, guztizko ekarpenean nahiz urteko gehikuntza tasan, hazkundera %54,7koa izan delarik. 2005ean zehar Araba geratu egin da eta urteko hazkundera %1,9koa izan du.

5.6.6. Aitortutako fitxategien segurtasun-mailak

Inongo segurtasun-mailarik aitortu gabeko fitxategi kopurua handia dela ikusteak adierazten digu hainbat erakundetan datuen babesari zenbaterainoko dedikazioa eskaintzen zaion. 2005ean, inongo segurtasun-mailarik aitortu gabeko 1.209 fitxategi zegoen artean, eta horrek esan nahi du, 2000. urtea baino lehenago estreinakoz aitortu zituztenetik ez direla eguneratu (15/1999 Lege Organikoa). Dena dela, joan den urteaz geroztik, fitxategi horien kopuruak %8,3ko murrizketa izan du eta horrek nolabaiteko eguneratzea adierazi nahi du.

Fitxategiaren hasierako aitortpena egin zen momentuaren arabera aitortutako segurtasun-mailen grafikoak arestian aipatu dugun bilakaera irudikatzen du. 2000. urtea baino lehenagoko fitxategiei dagozkien segurtasun-mailak eta eguneratutako fitxategiak bat datoz.




5.7. DBEBren fitxategiak arautzea

DBEBk bere zereginak bete ahal izateko datu pertsonalak tratatu behar ditu, bai Bulegora atxikita-ko langileenak eta baita Bulegoarekin zerikusia duten pertsonenak ere.

Horrela, bada, 2005eko irailaren 12ko DBEBren Zuzendariaren Ebazpenaren bidez (EHAA, 97. zk., 2005eko urriaren 17koa), Bulegoak erabiltzen dituen datu pertsonalen fitxategiak sortu ziren; hona hemen fitxategiok:

- Datuak Babesteko Erregistroa.
- Kontrol-jarduerei buruzko espedienteak.
- Kotsultei buruzko espedienteak.
- Giza baliabideak eta Nomina.
- Ekonomiaren, aurrekontuen eta kontabilitatearen kudeaketa.
- Sarrera eta Irteeren Erregistroa.
- Erakundeekiko komunikazio eta harremanen agenda.
- Harpidedunak.
- Programatutako gertaeretara eta prestakuntza jardueretara gonbidatutakoak eta bertaratutakoak.



6. Aholkularitza Juridikoa eta Ikuskaritza

6.1. Orokorki

DBEBren Aholkularitza Juridiko eta Ikuskaritza Unitatearen jarduera, barne-egintzez kanpo (Zuzendaritzaren, Idazkaritza Nagusiaren eta Erregistro eta Teknologia Berriak Unitatearen artape-na, alegia) 2005. urtean hurrengoetara bideratu da:

- Kontsultazkoa
 - Kontsultak
 - Txostenak
 - Bestelako jarduera (e-mailei erantzuna ematea, telefonozko eta aurrez aurreko erantzunak, aholkularitzazko bilerak, etb.)
- Kontrolezkoa
 - Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, baliogabetzeko eta horien aurka egiteko eskubideak erabiltzea
 - Legez kontrako jardueraz eginiko salaketa eta erreklamazioengatik
 - DBEBk berak hasitakoak

Bidezkoa denez, azpimarra dezagun, hurrengo ataletan ematen den informazioaz kanpo, 2006. urtean Bulegoak eginiko kontsulta, txosten eta erabakien edukia era anonimoan sartuko dela DBEBren Web orrian, nahi duenak kontsulta egin ahal izan dezan. Era berean, gehien errepikatu diren kontsulten erantzunak Web orriko berriazko atal batean txertatuko direla (FAQ galdera ohi-koenak).

6.2. Kontsulta-funtzioa

6.2.1. Idatzizko kontsultak

Bide horretatik eginiko kontsultei idatziz emaniko erantzuna, 2/2004 Legeko 17 n) artikuluan jaso, herri-aholkularitza zerbitzutzat kontsidera daiteke. Datu pertsonalen babesari dagokionez, arauzko

xedapen jakinei edo nozituriko jokabide zehatz bati buruz zalantzak aurkezten dituzten administrazioei edo pertsona pribatu, fisiko zein juridikoei eskaintzen zaie.

Kontsulta-funtzio honen mugak eragingo dute:

- Datu pertsonalen babesarekin loturiko zeinahi gairi buruzkoa izatea kontsulta; berariaz, 2/2004 Legearen 2.1 artikuluan adierazitako administrazioek edo erakundeek sortu edo kudeatzen dituzten fitxategiei buruzkoak, eta zuzenbide publikoari dagozkion ahalmenak egikaritzeko; eta
- Planteatu den kontuak zehatza izatea; horrek agintzen du, gutxien-gutxienez, zalantzak sorrarazi dituen jokabidea zehaztea edo ustezko kasu bati xedapena aplikatzea.

Kontsulta-funtzio horren barruan, Bulegoaren jarduerako lehen urtean bere interes behinena, ari garen ikuspegitik behatuta, aipatutako Legearen 2.1 artikulua aipatzen dituen fitxategien ardurdunen bidezko jardueran aritzeko ildoak adieraztea izan da.

Bulegoan idatziz eginiko hogeita lau kontsulta jaso dira eta horietatik hemeretziri eman zaie erantzuna, dagokion txostena eginik (gainerako bostei 2006. urteko lehen bi hilabeteetan eman zaie erantzuna). Azpimarratzekoak izan dira hurrengo kontuak jorratu dituztenak:

- Erregistro Ofizialetako batean agertzen diren enpresa baimenduen zerrenda Interneten agertzeko aukera.
- Epaitegietan auzi-errekurtsoa aurkezteko interesa zuten sindikatuei, Giza Baliabidee zuzendaritza batek hainbat pertsonaren gaineko informazioa lagatzeko aukera.
- Erakunde pribaturen batetik Osakidetza historia klinikoen igorpenean bete beharreko prozedura.
- Enpresa publiko jakin baten datu pertsonalen fitxategien erregimen juridikoa.
- Euskal Herriko Justizia Goi-Epaitegiko Auzi-Prozesuen Aretoak eskaturiko agiri-frogei dagokienez, datu pertsonalak Epaitegien esku uzteko aukera.
- Erregistro Administratibo Publiko jakin bateko datu pertsonalak eskuratzeko aukera.
- Euskal Herriko Kontsumitzaileen Erakundeei bideratu beharreko diru laguntzak emateko

Aginduan ezarritako obligazioa (erakunde horietako bazkideen zerrendak ematekoa, alegia) betetzeko beharra.

- Genero-bortxakeriaren biktimen babesean inplikaturiko organismoen arteko lankidetzak eta koordinaziorako Protokolo-proiektu jakin batean hainbat administrazioek elkarri datuak jakinarazteko aukera.
- Funtzionario publikoen soldatei buruzko datuak emateko aukera.
- Sarbide-eskubidearen gaineko informazioa eskatzea.
- Azterketa epidemiologikoak egiteko, gaixoen erakunde jakin bati datuak lagatzeko aukera.
- Prestazioen emakida onesteko arduradunak diren aldetik, aurreikuspen sozialeko erakunde jakin bateko organoek eragilearen eta bere onuradunen datu pertsonalak ezagutzeko duten aukera.
- TAO-ko zaindarien salaketa-agirian apuntatu behar dituzten datu pertsonalak agertzeko betebeharra.
- Euskarako ikastaroetara bidalitako langileen datuak sail jakin batek eskuratzeko aukera (asistentzia eta aprobetxamenduari buruzko txostenak).
- Eskumeneko prozesu baten barruan, diziplina alorreko ikerketak egin ahal izateko, Foru Aldundiek datu fiskalak emateko aukera.
- “Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Alorretako Industrien Katalogoa” CD-ROM-ean eta Web-ean argitaratzeko aukera.
- Ezintasunik nozitzen duten pertsonak lan-merkatuan sartzearen inguruko azterketak egiteko, Kontratazio publikoko prozedurekin loturiko datu pertsonalak lagatzeko aukera.

Kontsulta bide diren kontuen ikuspegitik, funtsezko eskubidearekin lotuenen agertzen diren jokabideez berebiziko interesa hautematen da, datu pertsonalen komunikazioez, batik bat.

Horrela, bada, datu-jakinarazpentzat hartuak izan litezkeen jokabideak datu pertsonalak babesteari buruzko araudiari egokitzeaz 12 kontsulta jaso dira.

Horietatik hiru behintzat organo jurisdikzionaleri datuak jakinaraztearekin edo organo jurisdikzionaleratik datozen datuak jakinaraztearekin loturik egon dira.

6.2.2. Txostenak

Atal honetan aintzat jotzen dira:

- Legea garatzen duten ebazpen orokorren proiektuei buruzko txostenak, 2/2004 Legearen 17 h) artikuluan xedatutakoaren arabera
- Derrigorrezko erantzuneko estatistikak determinatzen dituzten arauteriaren inguruko xedapenei buruzko txostenak, 2/2004 Legearen 17 h) artikuluan eta DBEBren Estatutua onesten duen urriaren 10eko 309/2005 Dekretuaren 5 a) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bulegoaren irizpideari jarraiki, bestelako kontuei buruzko zeinahi txosten, bai fitxategiak sortzearen gaineko ebazpen orokorrei dagozkienak, bai eta datuak babestearekin zuzeneko edo zeharkako lotura izan dezaketen ebazpen orokorrei dagozkienak ere, irizpenen bitartez gorpuztuko dira; irizpen horiek 17 n) artikulua adierazten ditu eta, era berean, 6.2.1.Kontsultak izeneko atalean aipatu dira.

Hala eta guztiz ere, Bulegoan sei txosten-eskaera jaso dira; sei txosten horiek ez ezik, 2004. urte-tik egiteke zeuden beste zazpi ere egin dira. Egin diren txostenik aipagarrienak gai hauen gainekoak izan dira:

- Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Estatutu-proiektua
- Etxebizitza eta Gizarte Gaiak Saileko datu pertsonalen fitxategiak arautzen dituen Agindu-Proiektua
- Osasun Saileko datu pertsonalen fitxategiak arautzen dituen Agindu-Proiektua
- Garraio eta Herri Lan Saileko datu pertsonalen fitxategiak arautzen dituen Agindu-Proiektua
- Prokuradoreen Elkargo bateko izaera publikoko fitxategien arauketa

Txostena eginarazi duten kontuen ikuspegitik, berebiziko interesa hautematen da datu pertsonalen fitxategiak sortzeari buruzko arauari dagokienez; hauek, hasieran aipatu dugun bezala eta 2/2004

Legearen egungo idazketaren arabera, ez dira bide honetatik gorpuztu behar, kontsulta bidetik baik, egin behar izatekotan.

6.2.3. E-mail eta telefonoz zein aurrez aurreko kontsulten erantzuna

Oraindik behar bezala egituraturako zerbitzurik ez dagoen arren, e-mail eta telefono bidez kontsulta asko jasotzen dira eta, noski, horien erantzuna berehala ematea da Bulegoaren asmoa.

Era berean, geure jarduerari izaera proaktiboa eman nahi izan diogun heinean, Euskadiko Autonomia Erkidegoko administrazioekin hamaika bilera egin eta lan-talde ugari sortu dira. Saio horietan, obligazioen betetze formalaz, beren jarduera-eremuari dagozkien egitarau berriei ekiteko burutu beharreko jardueraz aholkua eman zaie, datuak babesteari buruzko arautegia eta gainerakoak zintzotasun osoz errespetatuz egin dezaten etab..

6.3. Kontrol funtzioa

6.3.1. Zaintza-espedienteak

2/2004 Legearen 9.2 artikuluan aurreikusitako babes-eskubidea egikaritzearen ondorio diren espediente hauek adierazten dutenez, erreklamazioa egiten duenari aurkatze, eskuratze, zuzentze eta indargabetze eskubidea egikaritzea ukatu egin zaio.

2005. urtean 16 espediente izapidetu dira (horietatik hamabi, 2004. urtean hasitakoak ziren). Hona hemen azpimarratzekoak:

- Interneten hainbat urtetan agerian edukitako Hizkuntzen Eskola Ofizialaren maila-azterketetako emaitzen zerrendak indargabetzeko eskubidea egikaritzea.
- Medikuntzako profesional baten pazienteen historia klinikoetako datak eta pertsonen erregistroetako datuak eskuratu eta indargabetzeko eskubidea egikaritzea.
- Lanbide-elkargo jakin batean, diziplina-espedientei buruzko jakinarazpenetan konfidentzialtasuna urratu izana salatzea.
- Espediente zigortzailean, osasun alorreko datuak jakinaraztea salatzea.
- Polizi albumetik argazkia kentzeko eskubidea egikaritzea.

- Bost urte igaro aurretik, historia klinikoan zeutzan datuak kentzeko eskubidea egikaritzea.
- Funtzionario batek zerbitzua ematen duen administrazioan zeutzan bere datu pertsonalak eskuratzeko eskubidea egikaritzea.
- Historia klinikoan zeutzan datu pertsonalak zuzentzeko eskubidea egikaritzea.
- Babes-eskubidea sorrarazten duten kontuen ikuspegitik, datu pertsonalak ezabatzen berebiziko interesa hautematen da.
- Administrazio publikoen aurrean hiritarrari zor zaizkion eskuratzeko, zuzentzeko, indargabetze eta aurkatzeko eskubideak egikaritzeko aukera, forma eta baldintzez hiritar horren ezagutza urria ez ezik, zailtasun materialak eta, kasuren batean, administrazio horiek datuok emateko unean jarrera desegokirik ere hauteman da. Adiera berean, administrazioek behar bezalako erantzuna ematen ez diotenean eta zor zaizkion eskubideak egikaritzeko, hiritarrak DBEBra babes eskean jotzeko aukera daukala ez daki askotan. 2.1 atalean genioen bezala, hori guztia 308/2005 Dekretuak arautu du.

6.3.2. Salaketak

Halakotzat jotzen dira, Legeak xedatutakoaz bestelako jarduerak direla medio, interesdunek datu pertsonalen babes gaitan ezartzen dituzten erreklamazioak.

Bulegoan jaso diren hamahiru salaketetatik hiru ebazteko daude.

Aurkezturiko salaketen bidez Bulegoari jakinarazi zaizkion egintzei dagokienez, Legeak urraketatzat harturiko jokabideen berri ematen dute, dela obligazio formalak ez betetzearekin (DBEBren erregistroan fitxategiak sortu eta inskribatzea), dela datu pertsonalak arau kontrako eran prozesatzearekin (bereziki administrazio beraren organoen artean edo administrazio ezberdinetako organoen artean egindako datuen lagapenak, edo administrazioak pertsona pribatu bati datuak lagatzea), dela datu pertsonalak biltzean informazio printzipioa urratzearekin lotuak.

Salaketa-egileen kezka larrienek zerikusia izan dute, bai ez jakitearekin beren datu pertsonalak fitxategi batean bilduko zirela eta horren inguruan zein eskubide zuten, bai fitxategia bera ez sortzearekin, bai itxuraz datu horiek lege-babesik gabe erabiliko ziren ustearekin.

6.3.3. Aurretiazko jarduerak


Arau-hauste edo espediente zigortzaileari ekin behar ote zaion erabakitzeko beharrezkoak diren ikerketa-jarduerak dira hauek eta interesdunak emaniko informazioaren edo Bulegoak zuzenean jakin izanaren ondoriozkoak dira.

Datuen babes kontuetan alarma soziala hedaraz zezaketelarik, prentsan agerturiko gertakari eta informazioekin lotuak eta, bestetik, hiritarrek emaniko informazioen ondore gisa, aurretiazko jardueren bost espedienteri ekin dio DBEBk eta horietatik bat ebazteke dago oraino. Gainerako lauretatik bik hasiera-prozedurak abiarazi dituzte eta beste bi artxibatu egin dira, hobetzeko aholkuarekin edo gabe. Horiek direla eta, azpimarra dezagun oraindik ere datu pertsonalez josiriko paperen suntsiketa-prozesu desegokiak gertatzen ari direla; horren ondorioz, datu horiek zakarrontzietan edo bide publikoan agertzen dira gerora.

6.3.4. Lege-hausteen espedienteak

Hauek dira 2/2004 Legearen 17 f) eta 24-1 artikuluetan aurreikusitako espedienteak eta legez kontrako jarduerak gertatu diren egiaztatzeko formulatzen dira.

Guztira, honelako bost prozedurari ekin zaie; bostetatik bakar bat amaitu da eta gainerako laurak instrukzio fasean daude (dena den, 2006. urtearen hastapenean eman zaie ebazpena).



7. Idazkaritza Orokorra

7.1. Giza baliabideak

7.1.1. 2005eko aurrekontu-plantilla

Honako aurrekontu-plantilla eratu da:

GOI-KARGUAK / ALTOS CARGOS	LANPOSTU-KOPURUA / N. DOTACIONES
ZUZENDARIA / DIRECTOR	1
FUNTZIONARIOAK / FUNCIONARIOS	LANPOSTU-KOPURUA / N. DOTACIONES
28. maila / nivel 28	2
27. maila / nivel 27	1
26. maila / nivel 26	1
25. maila / nivel 25	1
24. maila / nivel 24	2
23. maila / nivel 23	3
21. maila / nivel 21	1
20. maila / nivel 20	2
18. maila / nivel 18	1
16. maila / nivel 16	2
GUZTIRA / TOTAL	16

7.1.2. 2005eko ekitaldian lanean jardun duten langileak

Aurreko plantilla gorabehera, lanpostuen zerrendak onartu eta lanpostu-hornikuntzari dagozkion prozedurak egin behar zirelako, 2005eko ekitaldian zehar DBEBren giza baliabideak ez dira behar bestekoak izan. Lanpostu-hornikuntza atzeratzen ari dela ematen duen arren, aipatu behar da

burutu diren prozesu guztiak eta horiek burutzeko epeak legez beharrezkoak direla (Estatutua, egitura organikoaren Ebazpena, lanpostuen zerrenda, lanpostu-hornikuntzarako deialdiak...). Ondoren aipatuko dugun moduan, zerbitzu-eginkizunak edo bitartekotasuna izendatzea erabili ditu DBEBk lanpostu horietako batzuk hornitzeko, baina bide horiek ez dira erabili nahi izan plantillako lanpostu guztietarako, “egonkorra ez den” langileekin administrazio-egitura berria abian jartzea inkongruentzia izan daitekeelakoan. Langile horiek, gainera, prestatu egin beharko lirатеke eta, neurri handi batean, lanpostutik ere kendu beharra ere gerta liteke, Lanpostuen Zerrenda onartutakoan egin behar izaten den lekualdatze-lehiaketarako deialdian.

2005. urtean zehar, lanean hasi ziren Erregistroaren eta Idazkaritza Orokorraren arduradunak, letratu bat eta administrari bat.

7.1.3. Giza baliabideei buruzko txostena

2005eko azaroan Giza Baliabideei buruzko txostena gauzatu zen “Datuak Babesteko Euskal Bulegoak legeak esleitzen dizkion zereginak bete ahal izateko beharrezko dituen giza baliabideen hornikuntza-prozesuak planifikatzerakoan, garrantzia duten gaiak aztertzeko asmoz, batez ere Lanpostuen Zerrenda egitea eta aurrerago egingo diren lanpostuen hautaketa-prozesuetan edo hornikuntza-prozesuetan eragina izango duten gaiak aztertea”. Txosten horren berri eman zitzaion Kontseilu Aholku-emaileari, 2005eko azaroaren 21eko bileran.

Bilera horretan honako gaiak jorratu zituzten:

- Aurrekariak
- Legeri aplikagarria
- Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren egitura
- Aurrekontu-plantilla
- Plantilla taxutzeari buruzko kontuak
- Lanpostuen zerrenda eratzea
- DBEBn lanean diharduten langileen lan-baldintzak
- Aurreikusitako jardueren kronograma

7.1.4. Egitura organikoaren araua eta lanpostuen arauzko hornidura prestatzeko, balorazio-sistemari buruzko araua lantzen

Aipatutako txosten horretatik abiatuta, 2005. urtean zehar, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren egitura organikoa garatzen duen ebazpena onartu eta argitaratu zen. Ebazpen horren edukia 3.3. atalean garatu da.

7.2. Aurrekontuaren, kontabilitatearen eta ondarearen kudeaketa

7.2.1. 2005eko aurrekontua

2/2004 Legearen 13. artikulua ezartzen du “Datuak Babesteko Euskal Bulegoak urtero-urtero aurrekontu-aurregitasmoa egin eta onartu beharko du. Gero, Eusko Jaurlaritzara bidali beharko du, han, behar bezain ondo bereizita, Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan sar dezaten, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu-sistema arautzen duten legeen arabera”.

Prozesua egin ondoren, 2005 ekitaldirako, DBEBrentzako onartu den gastuen aurrekontua hona hemen laburbilduta:

GASTUAREN AZALPEN ETA KONTZEPTUA CONCEPTO Y EXPLICACION DEL GASTO	GUZTIRA/TOTAL
1. Kapituluak: Langileen gastuak Capitulo 1: Gastos de Personal	471.053
2. Kapituluak: Funtzionamenduko gastuak Capitulo 2: Gastos de Funcionamiento	457.233
6. Kapituluak: Inbertsio errealak Capitulo 6: Inversiones Reales	236.442
Gastuak guztira Total Gastos	1.164.728

7.2.2. 2005eko aurrekontuaren exekuzioa

Aurrekontuaren exekuzioa hona hemen xehatuta:

2005eko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA							
SARRERAK	Aurrekontua			Urtea 05			
	Hasiera	Aldak..	Behin beti.	Aitortuta. eskubideak	Kobrant.	Kobratzeko	% Exekuzioa
4.- Transf. eta dirulag. arruntak	924.786,00		924.786,00	924.786,00	924.786,00		%100,00
5.- Ondare bidezko sarrerak	3.500,00		3.500,00	456,03	456,03		%3,03
7.- Transf. eta kapitaleko dirul.	236.442,00		236.442,00	236.442,00	236.442,00		%100,00
Guztira	1.164.728,00		1.164.728,00	1.161.684,03	1.161.684,03		%99,74
GASTUAK	Aurrekontua			Urtea 05			
	Hasiera	Aldak..	Behin beti.	Aitortutako betebeharrak	Ordain.	Ordaintzeko	% Exekuzioa
1.- Langileen gastua	471.053,00		471.053,00	280.577,25	254.176,87	26.400,38	%59,56
2.- Onds. ta zerb. erostea	457.233,00		457.233,00	192.401,84	7.364,30	185.037,54	%42,08
6.- Inbertsio errealak	236.442,00		236.442,00	232.312,78	151.111,21	81.201,57	%98,25
Guztira	1.164.728,00		1.164.728,00	705.291,87	412.652,38	292.639,49	%60,55

Sarrerei dagokienez, aipatu behar da ondare bidezko sarrerak (bankuko interesen ordainketa) aurreikusitakoak baino askoz txikiagoak izan direla.

Gastuen exekuzioaz honakoa aipatzea komeni da:

- I Kapituluaren exekuzioaren %59,56 izatearen arrazoia 7.1.2 atalean azalduta dago: DBEBk lanpostuak arauz hornitzen hasteko zailtasunak ditu eta hurrengo ekitaldian ere zailtasunak izaten jarraituko du.

- II Kapituluaren exekuzioaren % 42,08 izatearen arrazoia honetan datza: ohiko administrazio-egitura osoaren funtzionamenduak koste txikiagoa du, hain zuzen, DBEBk oso langile gutxi dituelako.

7.2.3. Aurrekontuen kudeaketari buruzko Instrukzio batean lanean

Idazkaritza Orokorrean, DBEBrako aurrekontuen, kontabilitatearen, ondarearen eta kontratazioaren kudeaketari buruzko instrukzio bat lantzeari ekin zitzaion, Legeak xedatutakoarekin bat etorritako eta DBEB kontrol-agintaritza dela aintzat izanda, Bulegoan inplementatu beharko liratekeen ekonomia, aurrekontu, kontabilitate, ondare eta kontratazioaren kudeaketa aztertzeke asmoz.

7.3. *Baliabide Materialak*

7.3.1. Egoitza

2005eko lehen seihilekoan, Eusko Jaurlaritzak Lakuan dituen lokal batzuetan egon zen DBEB.

Bulegoa kokatzeko hainbat toki izan ziren kontuan eta Eusko Jaurlaritzak Gasteizen dituen lokalak ezin izan dira hautatu, ez duelako erabili gabeko lokal egokirik.

Ondoren, Ondare Zuzendaritzarekin batera, alokairuen merkatuan zein eskaintza zegoen aztertu eta honelako lokalak aurkitu ziren:

- oso garestiak edo
- oso leku txarrean kokatutakoak edo
- behar besteko neurria ez zutenak edo
- egokitzeko inbertsio handia eskatzen zutenak edo
- beharrezko egokitasun-baldintzak betetzen ez zituztenak

Merkatua aztertzen zebilela, DBEBk jakin zuen EJIE SAK epe luzeko alokairua hartuta zuela Seminarioaren eraikinean, administrazio-erabilerarako egokitua zuela eta bazela solairu bat, DBEBren aldi baterako egoitza izateko baldintza egokiak betetzen zituena eta DBEBri uzteko

moduan zegoena. Izan ere:

- Gasteizen bertan zegoen, Mediterraneoaren Hiribidearen ondoan, hiriarekin barrutik oso ondo komunikatuta eta, hiriaren kanpoko aldetik ere, bertara erraz joateko moduko tokian. Era berean, aparkalekua ere bazuen, bisitariek erabili ahalko zutena.
- Bi aukera zeuden: eskainitako leku osoa erabiltzea edo langile berriak etorri ahala lekua gehiago hartzea.
- Eskainitako lokala banandu zitekeen (zenbait toki komun baino ez zen egongo) eta, honenbestez, DBEBren independentzia nabarmendu zitekeen.
- Kanpoan ere bazen aparkaleku bat, Bulegora etortzen diren herritarrek edo administrazioetako ordezkariak erabili ahal izango zutena.
- Oso inbertsio txikia egin beharko zen, DBEBren beharretara behar bezala egokitu ahal izateko.
- Eskaintzak bazituen beste zenbait elementu gehigarri, bereziki erakargarria egiten zutena (ahots-datuen sarea, wi-fi sistema, konexio elektriko nagusia eta bigarren mailakoa, kontroleko eta segurtasuneko sistemak eguneko 24 orduetan eta urteko 365 egunetan, mantenuak, garbiketa, gela digitala erabiltzeko aukera etab.).

Horregatik guztiagatik, Eusko Jaurlaritzaren Ondare Zuzendaritzaren txostena eskatu ondoren, 2005eko uztailaren hasi eta lau urterako, EAJE SAREkin azpierrentamenduko kontratua izenpetu zen. Beharrak sortu ahala, DBEB tokia hartzen joateko aukera ere egongo zen.

2005eko uztailaz geroztik hau da DBEBren helbide berria: Vitoria-Gasteizko Elizbarrutiko Seminarioaren mendebaldeko hegaleko hirugarren solairua, Tomas de Zumarraga dohatsuaren kalea, 71 zk., 3^o, 01008 posta-kodea, Vitoria-Gasteiz.

7.3.2. Altzarien lehiaketa

Urrian, DBEBko altzariak erosteko lehiaketa publikorako deialdia egin zen. Izapide arrunteko eta prozedura ireki bidezko lehiaketa hiru zatitan banatu zen (mahaiak, armairuak eta aulkiak), azarotik abiatu eta abenduan zehar exekutatu zen.

7.3.3. Beste zenbait kontratu txiki

2005. urtean zehar DBEBren funtzionamendua bermatzearren, hainbat kontratu txiki egin dira. Hona hemen garrantzitsuenak:

- bulegoko materiala erostea
- inprenta
- fotokopiagailuen mantenua
- itzulpen-zerbitzua
- mantenu informatikoak
- erakundearen irudiaren diseinua
- elementu adierazgarriak erostea

7.4. *Idazkaritza Orokorraren beste zenbait jarduera*

Idazkaritza Orokorrak Bulegoaren beste jarduera batzuetan izan duen parte hartzea aipatu beharrekoa da:

- jardunaldien prestakuntzan,
- Kontseilu Aholku-emailearen idazkaritzan,
- Komunikabideekiko koordinazioan eta
- erakundearen aurkezpen-plan bat diseinatzen.



8. Kontseilu Aholku-emailea

2/2004 Legearen 14. artikulua aurreikusitakoaren arabera, DBEBren zuzendariaren aholkularitzarako kide anitzeko organoa da Datuen Babeserako Kontseilu Aholku-emailea.

Aurreko urteko osaketa berbera eduki du Kontseilu horrek, baina Lurralde Historikoen 2005. urtean zehar ez dute beren ordezkaria izendatu:

D. Juan Luis Mázmela Etxebarria	Eusko Legebiltzarreko ordezkari bat
D. José María Endemaño Aróstegui	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako ordezkari bat.
D. Rafael Ibargüen González	Toki-erakundeetako ordezkari bat
D. Eduardo Jacob Taquet	Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea
D. Iñaki Esparza Leibar	Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

8.1. Egindako bilkurak

2005. urtean zehar, honako bilera hauek egin ziren eta bilera horietako gai-zerrendetako gai nagusiak hauexek izan ziren:

2005eko martxoaren 18ko bilera

- DBEBren osaketari buruzko txostena.
- 2005eko aurrekontuak.
- Legegintza-garapena: DBEBren Estatutua; Datu pertsonaletako fitxategien eskubideen tutoretzari eta fitxategiok kontrolatzeari buruzko Erregelamendua.

2005eko urriaren 5eko bilera.

- DBEBren 2004ko Oroitza-txostena. Oroitza-txostenaren edukiari, lanketari eta banaketari

buruzko azalpen laburra.

- DBEBren jarduerak azken bileraz geroztik.
- DBEBren egoitza berria.
- Foru Aldundiek Kontseilu Aholku-emailerako Lurralde Historikoen ordezkari izateko inor proposatu ez izana.
- Kontseilu Aholku-emailea. Egutegia jarri, antolaketako eta funtzionamenduko arauak egin eta onartzeko, eta Lehendakaria izendatzeko.
- Legegintza-garapena. DBEBren Estatutu-proiektuak eta 2/2004 Legea garatzeko Erregelamendu-proiektuak. Egungo egoera.

2005eko azaroaren 21eko bilera.


- Kontseilu Aholku-emailearen Funtzionamenduaren Barne Araudiaren Proiektua azaldu.
- Giza baliabideei eta Erabaki-proiektuei buruzko txostena azaldu.
- Kontseilu Aholku-emailearen txostena, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren egitura organikoa garatzen duen zuzendariaren Erabaki-proiektuari buruzkoa.

8.2. Antolaketako eta Funtzionamenduko Arauak prestatzen

Azaroaren 21eko Kontseiluan, Kontseilu Aholku-emailearen Antolaketako eta Funtzionamenduko Arauei buruzko eztabaida luzea izan zen eta 2006. urtean egiten den lehen deialdirako, dokumentu bat aurkeztu eta onartzekotan geratu ziren.


ERANSKINAK

- I.ERANSKINA. DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOA ZIFRATAN
- II.ERANSKINA. ARAUAK ETA XEDAPENAK



I. ERANSKINA

DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOA ZIFRATAN





I. ERANSKINA.Datuak Babesteko Euskal Bulegoa zifratan

AI-I. Datu Pertsonalak Babesteko Erregistroaren zifrak

Fitxategien mugimenduei buruzko datuak

C1. 2005ean aitortutako mugimenduak, administrazioka

Administrazioa	Inskrip.	Aldak.	Ezabapena	Mug. guztira	Saldo garbia
Eusko Jaurlaritza	40	101		141	+40
Erakunde autonomikoak				0	=
Foru-administrazioa	6	122		128	+6
Toki-administrazioa	776	1.104	85	1.965	+691
Udalaz gaineko entitateak				0	=
Beste zenbait erakunde	2			2	+2
Guztira 2005ean	824	1.327	85	2.236	+739

C2. Toki-administrazioak 2005ean aitortu zituen mugimenduak zehaztuta

Biztanleak	Inskrip.	Aldak.	Ezabapena	Mug. guztira	Saldo garbia
< 500	32	25		57	+32
500 - 999	32	47		79	+32
1.000 - 4.999	165	218	6	389	+159
5.000 - 9.999	116	128	12	256	+104
10.000 - 19.999	158	385	16	559	+142
20.000 - 49.999	189	209		398	+189
50.000 - 99.999	80	92	51	223	+29
> 100.000	4			4	+4
Guztira 2005ean	776	1.104	85	1.965	+691

Fitxategien Arduradunei buruzko datuak

C3. Fitxategien arduradun aitortzaileak, administrazioa eta izaera juridikoa

Administrazioa	Adm.organoa	Erak.auton.	Beste batzuk	Guztira 2005ean
Eusko Jaurlaritza	101	8		109
Erakunde autonomikoak				0
Foru-administrazioa	77	5	2	84
Toki-administrazioa	587	19	25	631
Udalaz gaineko entitateak			14	14
Beste zenbait erakunde		4		4
Guztira 2005ean	765	36	41	842

C4. Erakunde aitortzaileak, administrazioa eta Lurralde Historikoa

Administrazioa	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira 2005ean	2004. urtea	Aldakuntza	Δ %etan
Eusko Jaurlaritza	19		0	19	18	+1	%5,6
Erakunde autonomikoak	0	0	0	0	0	=	%0,0
Foru-administrazioa	5	5	3	13	12	+1	%8,3
Toki-administrazioa	36	78	92	206	181	+25	%13,8
Udalaz gaineko entitateak		4	2	6	6	=	%0,0
Beste zenbait erakunde	1	3		4	2	+2	%100,0
Guztira 2005ean	61	90	97	248	219	+29	%13,2
2004. urtea	59	80	80	219			
Aldakuntza	+2	+10	+17	+29			
Δ %etan	%3,4	%12,5	%21,3	%13,2			

C5. Toki-erakunde aitortzaileak, biztanle-estratuka eta Lurralde Historikoka


Biztanleak	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira 2005ean	2004. urtea	Aldakuntza	Δ%etan
< 500	10	7	12	29	27	+2	%7,4
500 - 999	11	7	7	25	24	+1	%4,2
1.000 - 4.999	11	24	14	49	39	+10	%25,6
5.000 - 9.999	1	12	13	26	24	+2	%8,3
10.000 - 19.999	1	8	23	32	29	+3	%10,3
20.000 - 49.999		12	12	24	17	+7	%41,2
50.000 - 99.999		6	4	10	10	=	%0,0
> 100.000	2	2	7	11	11	=	%0,0
Guztira 2005ean	36	78	92	206	181	+25	%13,8
2004. urtea	36	70	75	181			
Aldakuntza	=	+8	+17	+25			
Δ%etan	%0,0	%11,4	%22,7	%13,8			

C6. Aitortzaileak EZ diren udalak, biztanle-estratuka eta Lurralde Historikoka

Biztanleak	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira 2005ean	2004. urtea	Aldakuntza	Δ%etan
< 500	10	17	12	39	40	-1	%-2,5
500 - 999	2	10	2	14	15	-1	%-6,7
1.000 - 4.999	4	16	10	30	36	-6	%-16,7
Guztira 2005ean	16	43	24	83	91	-8	%-8,8
2004. urtea	16	46	29	91			
Aldakuntza	-	-3	-5	-8			
Δ %etan	=	%-6,5	%-17,2	%-8,8			

Aitortutako fitxategiei buruzko datuak

C7. Urtero aitortzen diren fitxategi-kopuruak izandako bilakaera



C8. Aitortutako fitxategi-kopurua, administrazioka eta Lurralde Historikoka

Administrazioa	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira 2005ean	2004. urtea	Aldakuntza	Δ %etan
Eusko Jaurlaritza	407	70	12	489	449	+40	%8,9
Erakunde autonomikoak	0	0	0	0	0	=	%0,0
Foru-administrazioa	42	74	135	251	245	+6	%2,4
Toki-administrazioa	215	781	1.346	2.342	1.651	+691	%41,9
Udalaz gaineko entitateak		15	16	31	31	=	%0,0
Beste zenbait erakunde	1	6		7	5	+2	%40,0
Guztira 2005ean	665	946	1.509	3.120	2.381	+739	%31,0
2004. urtea	622	732	1.027	2.381			
Aldakuntza	+43	+214	+482	+739			
Δ %etan	%6,9	%29,2	%46,9	%31,0			

C9. Aitortutako fitxategien batezbesteko kopurua, administrazioka eta Lurralde Historikoka

Administrazioa	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira 2005ean	2004. urtea	Aldakuntza	Δ %etan
Eusko Jaurlaritza	25,3	0,0	0,0	25,7	24,9	0,8	%3,2
Erakunde autonomikoak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	%0,0
Aldundiak	8,4	14,8	45,0	19,3	20,4	-1,1	%-5,4
Udalak	6,0	10,0	14,6	11,4	9,1	2,2	%24,6
Udalaz gaineko entitateak	0,0	3,8	8,0	5,2	5,2	0,0	%0,0
Beste zenbait	1,0	2,0	0,0	1,8	2,5	-0,8	%-30,0
Guztira 2005ean	12,1	9,7	15,5	12,6	10,9	1,7	%15,7
2004. urtea	10,5	9,2	12,8	10,9			
Aldakuntza	1,6	0,6	2,7	1,7			
Δ %etan	%14,9	%6,4	%20,9	%15,7			

C10. Eusko Jaurlaritzak aitortutako fitxategi-kopurua

Sailak	Guztira 2005ean	2004. urtea	Aldakuntza	Δ %etan
Nekazaritza eta Arrantza	38	38	=	%0,0
Merkataritza, Kontsumo eta Turismoa	16	16	=	%0,0
Kultura	18	18	=	%0,0
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa	24	24	=	%0,0
Ogasuna eta Herri Administrazioa	49	49	=	%0,0
Industria, Nekazaritza eta Arrantza	25	25	=	%0,0
Herrizaingoa	85	85	=	%0,0
Justizia, Lana eta Gizarte Segurantza	66	66	=	%0,0
Lurralde Antolamendua, Etxebizitza eta Ingurumena	25	25	=	%0,0
Osasuna	114	77	+37	%48,1
Garraio eta Herri Lana	13	13	=	%0,0
Lehendakariordetza	6	6	=	%0,0
Eusko Jaurlaritza- Lehendakaritza	10	7	+3	%42,9
Guztira Eusko Jaurlaritza	489	449	+40	%8,9

C11. Foru-administrazioak aitortutako fitxategi-kopurua

Organismo	Guztira 2005ean	2004. urtea	Aldakuntza	△ %etan
Arabako Foru Aldundia	37	37	=	%0,0
Gipuzkoako Foru Aldundia	130	130	=	%0,0
Bizkaiko Foru Aldundia	69	68	+1	%1,5
Bizkaiko Batzar Nagusiak	5	5	=	%0,0
Gipuzkoako Batzar Nagusiak	5	0	+5	%0,0
Arabako Batzar Nagusiak	5	5	=	%0,0
Guztira Foru-adminis.	251	245	+6	%2,4

C12. Udalek aitortutako fitxategi-kopurua, biztanle-estratuka eta Lurralde Historikoka

Biztanleak	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira 2005ean	2004. urtea	Aldakuntza	△ %etan
< 500	30	32	93	155	123	+32	%26,0
500 - 999	44	38	59	141	109	+32	%29,4
1.000 - 4.999	47	131	199	377	218	+159	%72,9
5.000 - 9.999	9	74	276	359	255	+104	%40,8
10.000 - 19.999	14	56	397	467	325	+142	%43,7
20.000 - 49.999		217	171	388	199	+189	%95,0
50.000 - 99.999		73	43	116	87	+29	%33,3
> 100.000	71	160	108	39	335	+4	%1,2
Guztira 2005ean	215	781	1.346	2.342	1.651	+691	%41,9
2004. urtea	211	570	870	1.651			
Aldakuntza	+4	+211	+476	+691			
△ %etan	%1,9	%37,0	%54,7	%41,9			

C13. Udalek aitortutako fitxategien batezbesteko kopurua, biztanle-estratuka eta Lurralde Historikoka


Biztanleak	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira 2005ean	2004. urtea	Aldakuntza	Δ %etan
< 500	3,0	4,6	7,8	5,3	4,6	+0,8	%17,3
500 - 999	4,0	5,4	8,4	5,6	4,5	+1,1	%24,2
1.000 - 4.999	4,3	5,5	14,2	7,7	5,6	+2,1	%37,6
5.000 - 9.999	9,0	6,2	21,2	13,8	10,6	+3,2	%30,0
10.000 - 19.999	14,0	7,0	17,3	14,6	11,2	+3,4	%30,2
20.000 - 49.999	0,0	18,1	14,3	16,2	11,7	+4,5	%38,1
50.000 - 99.999	0,0	12,2	10,8	11,6	8,7	+2,9	%33,3
> 100.000	35,5	80,0	15,4	30,8	30,5	+0,4	%1,2
Guztira 2005ean	6,0	10,0	14,6	11,4	9,1	+2,2	%24,6
2004. urtea	5,9	8,1	11,6	9,1			
Aldakuntza	0,1	1,9	3,0	2,2			
Δ %etan	%1,9	%23,0	%26,1	%24,6			

C14. Beste erakunde batzuek aitortutako fitxategien batezbesteko kopurua

Erakundea	Guztira 2005ean	2004. urtea	Aldakuntza	Δ %etan
Bilbao-Bizkaia Ur-partzuergoa	7	7	=	%0,0
Bizkaiko Garraio Partzuergoa	1	1	=	%0,0
Lea Artibaiko udalen Mankomunitatea	4	4	=	%0,0
Deba Garaiko udalen Mankomunitatea	7	7	=	%0,0
Busturialdeko gizarte zerbitzuen Mankomunitatea	3	3	=	%0,0
Urola Kostako Mankomunitatea	9	9	=	%0,0
Arabako Merkataritza eta Industri Ganbara Ofiziala	1	1	=	%0,0
Euskal Herriko Unibertsitatea	4	4	=	%0,0
Euskadiko Informatika Ingeniarien Elkargo Ofiziala	1	0	+1	%0,0
Bizkaiko Ingeniari Tekniko Industrialen Elkargo Ofiziala	1	0	+1	%0,0
Guztira beste zenbait	38	36	+2	%5,6

C15. Aitortutako fitxategi-kopurua, administrazioka eta segurtasun-mailaka

Administrazioa	Ez du aitortu	Oinarrizko maila	Maila ertaina	Goi-maila	Guztira
Eusko Jaurlaritza	127	186	25	151	489
Erakunde autonomikoak					0
Foru-administrazioa	53	64	107	27	251
Toki-administrazioa	1011	720	358	253	2342
Udalaz gaineko entitateak	14	12	2	3	31
Beste zenbait erakunde	4	2		1	7
Guztira 2005ean	1.209	984	492	435	3.120
2004. urtea	1.319	545	262	255	2.381
Aldakuntza	-110	439	230	180	739
Δ %etan	%-8,3	%80,6	%87,8	%70,6	%31,0

C16. Segurtasun-mailaren arabera, aitortutako fitxategi-kopurua denboran zehar banatuta.

*AI-II. Aholkularitza Juridikoa eta Ikuskaritza Unitateari buruzko zifrak***Kontsultei eta txostenei buruzko datuak***C17. 2005ean zehar jasotako kontsulta-kopurua, eskaeragile-motaren arabera*

Tipologia	Administrazioa	Kopurua
A.- 2/2004 Legearen 2.1. artikulua aipatzen dituen administrazio publikoak, erakundeak eta korporazioak		16
EAEko Administrazio Orokorra	Industria saila	1
	Ogasuna eta Herri Administrazioa saila	1
	Osasun saila	3
	Herrizaingo saila	1
	Justizia saila	3
	Nekazaritza saila	1
	Garraio saila	1
Toki-administrazioa	Gasteizko Udala	2
	Amorebietako Udala	1
	Laudioko Udala	1
Beste zenbait	UPV/EHU	1
B.- Legearen aplikazio-eremuan sartzen ez diren pertsona juridikoak		4
	Arrasateko "Liga de Asistencia y educación"	1
	IHOBE	1
	Kontsumitzaileen Batasunak	1
	ELKARKIDETZA	1
C.- Pertsona fisikoak		2
KONTSULTA-KOPURUA GUZTIRA		22

C18. 2005ean jasotako eta erantzundako kontsulta-kopurua

2005ean jasotako kontsultak	22
2005ean erantzundako kontsultak	17
Kontsultei egindako txostenak oraindik egiteke	5
2005ean kontsultei egindako txostenak guztira	17

C19. 2005ean eskatutako eta egindako txosten-kopurua

Eskatutako txostenak	6
2004ean erantzundako txostenak	7
2005ean erantzundako txostenak	6
Oraindik egiteko dauden txostenak	0
2005ean egindako txostenak guztira (2004 + 2005)	13

C20. 2005. urtean zehar eskatutako txosten-kopurua, eskaeragile-motaren arabera

Tipologia	Administrazioa	Kopurua
A.- 2/2004 Legearen 2.1. artikulua aipatzen dituen administrazio publikoak, erakundeak eta korporazioak		4
EAEko Administrazio Orokorra	Herrizaingo saila	1
	Etxebizitza eta Gizarte Gaiak saila	1
	Osasun saila	1
	Garraio eta Herri Lanak saila	1
Toki-administrazioa	Sopelako Udala	1
Profesionalen elkargoak	Prokuradoreen Elkargoa	1
TXOSTEN-KOPURUA GUZTIRA		6

Kontrol-lanari buruzko datuak

C21.2005ean zehar zenbatetan erabili den babes-eskubidea

2005ean eskatutako babesak	4
2004ko babesak bukatuta	9
2005eko babesak bukatuta	2
Oraindik egiteke dauden babesak	2
2005ean zehar hartutako Ebazpenak guztira (2004 + 2005)	11

C22. 2005eko salaketak-kopurua

Jasotako salaketak	13
2005eako salaketak bukatuta	8
Oraindik egiteke dauden salaketak	5
2005ean zehar hartutako ebazpenak guztira (2004 + 2005)	8

C23. 2005eko aurretiko jarduera-kopurua

2005ean irekitako aurretiko jarduerak	5
---------------------------------------	----------

C24. 2005ean irekitako arau-hausteen prozedura-kopurua

Irekitako arau-hausteen prozedurak	5
2005eko arau-hausteen prozedurak bukatuta	1
Oraindik egiteko dauden arau-hausteen prozedurak	4
2005ean zehar hartutako Ebazpenak guztira (2004 + 2005)	1

Al-III. Aurrekontuen exekuzioari buruzko datuak

C25. 2005eko aurrekontuaren likidazioa

SARRERAK	Aurrekontua			Urtea 05			
	Hasiera	Aldak..	Behin beti.	Aitortuta. eskubideak	Kobrant.	Kobratzeko	Exekuzioa %
4.- Transf. eta dirulag. arruntak	924.786,00		924.786,00	924.786,00	924.786,00		%100,00
5.- Ondare bidezko sarrerak	3.500,00		3.500,00	456,03	456,03		%3,03
7.- Transf. eta kapitaleko dirul.	236.442,00		236.442,00	236.442,00	236.442,00		%100,00
Guztira 2005/12/31ean	1.164.728,00		1.164.728,00	1.161.684,03	1.161.684,03		%99,74

GASTUAK	Aurrekontua			Urtea 05			
	Hasiera	Aldak..	Behin beti.	Aitortutako betebeharrak	Ordain.	Ordaintzeko	Exekuzioa %
1.- Langileen gastua	471.053,00		471.053,00	280.577,25	254.176,87	26.400,38	%59,56
2.- Onds. ta zerb. erostea	457.233,00		457.233,00	192.401,84	7.364,30	185.037,54	%42,08
6.- Inbertsio errealak	236.442,00		236.442,00	232.312,78	151.111,21	81.201,57	%98,25
Guztira 2005/12/31ean	1.164.728,00		1.164.728,00	705.291,87	412.652,38	292.639,49	%60,55

C26. Irabazi eta galeren kontua

GASTUAK	05 urtea	04 urtea	SARRERAK	05 urtea	04 urtea
Soldatak eta ordainsariak	234.225,32	47.424,23	EAE transferentzia arruntak	924.786,00	100.002,00
Gizarte-kargak	43.474,56	7.389,36	EAE kapitalezko transferentziak	236.442,00	19.998,00
Pentsio-planetako ekarpenak	2.579,37	0,00	Interesak	456,03	28,39
Berstelako gastuak (formazioa/asegurusk....)	298,00	0,00			
Ikerkuntza eta garapeneko gastuak	0,00	312,04			
Lokalen alokairua	83.533,47	0,00			
Eraikinetako mantentze-lanak	670,12	0,00			
Aitzariak konpontzea eta mantentzea	921,25	0,00			
Garraioak	1.216,28				
Publizitatea eta harreman publikoak	29.137,55				
Protokolo eginkizunak	802,76				
Bulego eta informatikako materiala	14.123,95	5.835,37			
Prentsa, aldizkariak eta liburuak	424,24	3.429,02			
Garbitasuna	1.641,09				
Lokomozioa eta egoitza-gastuak	12.786,37	3.756,34			
Posta-komunikazioak	1.407,69				
Informatika-aplikazioak mantentzea eta ustiatzea	29.470,32	17.598,37			
Mezularitza zerbitzuak	83,10				
Argitalpenak egitea eta zabaltzea	8.566,63				
Bilerak, konferentziak eta ikastaroak	2.471,16				
Beste zerbitzu batzuk	3.522,66	921,39			
Beste enpresa batzuek egindako lanak	1.623,20				
Amortizazio zuzkidura	4.183,73				
Gastuak	477.162,82	86.666,12	Sarrerak	1.161.684,03	120.028,39
			Ondare-emaitza	684.521,21	33.362,27

C27. 2005eko ibilgetua

	__ 04 abend. __			__ 05 abend. __			__ 05 abend __		
	Gordina	Amort.	Garbia	Erosketak	Bajak	Amort.	Gordina	Amort.	Garbia
Altzariak	11.667,23		11.667,23	83.929,05		1.632,23	95.596,28	1.632,23	93.964,05
Bulegoko ekipamendua	15.367,24		15.367,24			2.113,00	15.367,24	2.113,00	13.254,24
Ekipamendu informatikoa			-	3.286,98			3.286,98	-	3.286,98
Aplikazio informatikoak	1.093,30		1.093,30	145.096,75		438,50	146.190,05	438,50	145.751,55
Guztira	28.127,77	-	28.127,77	232.312,78	-	4.183,73	260.440,55	4.183,73	256.256,82

C28. 2005eko aurrekontu-plantilla

DBEE sortu zen otsailaren 25eko 2/2004 legearen bidez, eta testuan erakundearen zuzendaria baino ez zen aipatzen. Ondoren, 2004ko irailan, langile bat hartu zuen administrazio-lanak egiteko, eta 2005ean beste lau langile hasi ziren lanean erakundearen. Plantillaren osaketari buruzko lehenengo erreferentzia agertzen da 2005eko aurrekontuen proiektuan. Gaur egun, garabidean da LZ. Horrenbestez, agiri honetan azaltzen diren zuzkidurak eta mailak behin-bejhinekoak dira.

	____ 04 abend. ____		_Aldakuntza_	____ 05 abend. ____	
	Zuzkidura	Errealia		Zuzkidura	Errealia
Goi-karguak					
Zuzendaria		1		1	1
FUNTZIONARIOAK					
28 maila				2	2
27 maila				1	
26 maila				1	
25 maila				1	
24 maila				2	1
23 maila				3	
21 maila				1	
20 maila				2	1
18 maila		1		1	1
16 maila				2	
GUZTIRA	0	2	0	17	6